


ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

LITERATURA SORKUNTZA ETA ITZULPENA
CREACION Y TRADUCCION LITERARIA



9. urtea

1993

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

14

IX urtea

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

E.I.Z.I.E



«Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria»

Azala: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: S.S. 890/93

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Juan Garzia

Bego Montorio

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Helbidea:

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

E.I.Z.I.E

Aurkibidea

Ale honetan	9
Euskal itzulpenaren garapena	
<i>Xabier Mendiguren</i>	11
Traducción versus creación	
<i>Francesc Parcerisas</i>	33
Cómo hacer vivir a los muertos	
<i>Agustín García Calvo</i>	51
Felix qui potuit rerum cognoscere causas	
<i>Anjel Lertxundi</i>	79
Autor y traductor	
<i>Miguel Sáenz</i>	103
Itzultzaile baten arazoak	
<i>Maria Garikano</i>	119
Zenbait topiko itzulpengintzaren inguruan	
<i>Manu Lopez</i>	127
Euskal itzulpengintzaren etorkizuna	
<i>Xabier Olarra</i>	131

Ale honetan

Itzulpengintzaren eta sorkuntzaren bidegurutzean kokatzea izan zen orri hauetara bildu ditugun hitzaldien asmoa. Maizegi ibili baitira berezita bide horiek, zein beretik, lan tresnak —hizkuntzak, alegia— hartaraxe derrigortutako harremanari iheska, batak bestearekin zerikusirik ez zutelakoan. Udako saio haien ondorioz badakigu, gutxienez, gertuago dagoela literatur itzultzailea sormen lanetik «mimesis» hutsetik baino.

Nolakoa da, baina, harreman horren izakera? Hortarakoxe bildu ziren literatur itzultzaile eta sortzaileak, kezka eta iritzi horien inguruan sakontzeko gogoz. Konklusio bat dago garbi: itzultzailea nahiz sortzailea, biak dira idazle. Sortzailearen esparrutik askatasunaren aldeko aldarriak baldin badira nagusi, itzultzailearenetik ofizioaren ezagutza umilagoa jarri ohi da agerian. Jakina, ofizioaren aldeko apustuak badauka, gurean, sortzaile ahobero baina ofiziogabearen aurrean, funtsezko abantailarik. Ofizioa esaten dudanean, idazlearen tresna nagusi den hizkuntzaren oparotasun eta egokitasuna aipatu behar, derrigorrez. Itzultzailearen ofizioak baditu alderdi gehiago. Baina, hala eta guztiz ere, baliabide horiek guztiak, nahiz eta funtsezko tresnak izan itzultzailearen iaiotze sasoiaren, gutxi dira literatur unibertso berri batera jauzi egin eta bertako ondarea gurera bihurtzeko garaian. Jauzi edo murgiltze horren ondorioz, tankera hartu berri duen emaitzak gainean du sormenaren igurtzia. Zergatik, bestela, hitz egin bertsioaz edo honako edo harako edizioaz? Honek guztiak bulztatuta bildu dira idazleok itzulpenaren eta sorkuntzaren bideguru-

tzean. Batak, gogor eutsi nahi lioke jatorrizko testuari; bigarrenaren-tzat, berriz, gaur egungo irakurleak ulertzeko moduko traza behar luke izan itzulpen lanak. Ezinezkoa zaio lehenengoari jatorrizko testuaren xarma orri itzulietan barreiatzea; testu ororen funtsa beti itzul daitekeela erantzuten dio bigarrenak. Sokaren bi muturrak, itzulpe-naren tentsio betikoa. Bidean, idazlana eta sorkuntza berria.

Iñaki Aldekoa

Euskal itzulpenaren garapena

Xabier Mendiguren Bereziartu

«Literatur sorkuntza eta Itzulpena» izenburupean antolatu ditugun jardunaldi hauen helburua, oker ez banago, idazle-sortzaile eta itzultzaileen arteko harremanak argitu eta sakontzea da alde batetik; eta euskal itzulpengintza, orain arte eman dituen urratsak ikertuz, zer unetan aurkitzen den ulertzea, bestetik, nola bere buruarekiko hala euskal literatur prosarekiko.

Honelako zeregin bat behar bezala burutzeak testuinguru zabala-go batean euskal itzulpengintza kokatu eta bere baitako prozesuak argitzea esan nahi du; bai baterako eta bai besterako, oraindik nazio-arte mailan ezezik, gure artean egiten ari garen ikerketak haur-oihaletan daudela esan beharra daukagu; horregatik, gaur hemen jakite baino borondate on gehiagoz eskainiko ditudan gogoetek etorkizunearan askozaz ezaguera zehatz eta ugariagoarekin burutuko den sakontze-lan baten hasikin xume izan nahiko lukete.

Historiari gainetik begira

1571n Leizarragak *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berrria* plazaratu zuenetik hasi eta gaur egunera arte, argia ikusten duten ia 1.000 tituluren %40a itzulia den une honetara arte bide luzea egin du euskal itzulpengintzak. Zalantzarik ez dago, mendez mendeko azterketa bat egitean, une hobek eta eskasagoak izan dituela itzul-

pengintzak, baina irizpide eta balioespen desberdinak gorabehera, berorren eragin eta presentzia nabaria dira ezaugarri gailen eta ukaezinak.

I. Sarasolak bildutako datuei bagazozkie¹, gure mende honen hasierara bitarteko euskarazko obren erdia itzulpen esplizituak ziren; eta bereziki azpimarratzen dut esplizitu hitz hau, zeren beste obra asko, jatorrizkotzat emanak, itzulpenak baitira, aldez edo moldez, nahiz eta inplizituen multzoan sartzekoak izan. Gerra aurrean, 1934-35 urtea hartzen badugu %57,9 ematen digu itzulpenak. Hogeitamar urte geroago, 36.eko gerratearen ondoriozko ezinalditik euskal liburugintza bere burua altxatzen hasten denean, 1962-63ko datuei begiratu bat ematean ohartzen gara argitalpenak 42 direla eta horietatik 26 bakarrik urte berean sortutakoak, 19 soilik jatorriz euskaldunak izaki: hemen ere liburu itzuliak erdia baino gehiago dira. Hurrengo hamarkadan, 1972-73 erreferentziazat harturik jatorrizko liburu-gintzak gorakada nabaria egiten du eta euskararen historia guztian baino euskal liburu gehiago sortzen dira garai horretan: 101 titulutatik 96 urteko produkzio dira eta 78 euskaraz sortuak.

Urte horretatik hasi eta hamar urte geroago, Eusko Jaurlaritzak finkatzen den arte, portzentaiatan itzulpenak behera egiten du, baina ia 300 obra itzultzen dira, guztizkoaren %30 izateraino. Halere, esan beharra dago itzulpenaren eragina izugarri zabaldu eta sendotzen dela komunikabide sortuberriari eta pixkanaka finkatuz doan administrazio elebidunari esker. Beraz, itzulpenaren intzidentzia obra argitaratuen estatistiketara ez dela mugatzen kontutan harturik, joan den hamarkadako azken urteetako datuak bakarrik ematearren, 1986an %22,0 izatetik pixkanaka goraka doa, 1990 %36,5 eta 1991n %42,0 izateraino; gainera, esan behar da, haur eta gazte-literaturaren arloan %62,2 dela itzulpena, euskal jatorriko liburua (%37,4) izaki. J.M. Torrealdaireren hitzak aipatuko ditut hemen: «Ez dakigu itzulpen/kreazio proportzio hau zuzena denentz, idealki beharko liratekeenak diren ala ez, alegia. Baina itzulpena kreazioaren ginetik egotea, ezinbestekotzat jotzen dugu, kontutan izanik gure sormen-ahalmena eta ahan-tzi gabe liburu-mota hauxe dela liburugintza osoaren hirutik bat»².

90. urteen hamarkadan aurrera goazen heinean, ez dirudi joera honek gelditu edo behera egiteko asmorik duenik eta berriz ere itzulpenak bere presentzia finkatzeari ekin dio, behialako garaietan bezala ia produkzioaren erdia izatera hurbilduz; halere, aipatu ditugun arrazoiengatik, gizarte-mailan duen eragina liburu-kopuruetatik susma daitekeena baino askoz sakonagoa izan da, komunikabideei esker batipat.

Orain arte euskal itzulpengintzaren alderdi kuantitatiboaz mintzatu gara, beharrezkoa baitzen zenbaitek ahaztuxe edo lausotuak eduki litzakeen zifra horiek gogora ekartzea, haren alderdi kualitatiboagoz mintzatzen hasi aurretik.

Zer eta nola euskaratu den

Ljudskanov traduktologo bulgariarraren eskutik, euskal itzulpengintza ere, beste herrialdeetako itzulpen asko bezala, Jainkoaren hitza galdu edo bestelakotzeko beldurraren menpean eta hitzez hitzeko joera batean sortu zela aitortu behar dugu. Itzulpen mota horrek jatorrizko hizkuntz osagai formal guztiak emateko ahaleginak egiten zituen eta kezka hori sarreran ezezik, itzulpena burutzeko eran ere nabari da Leizarragaren itzulpenean.

Joera horrek, oro har, ez zuen izan hain jarraitzaile esturik ondorengo itzultzaile katolikoaren artean, zeren Trentoko Kontzilioaren ostean eta Kontra-erreformaren gidaritzapean sortu ziren euskal itzulpenetan katekesi, aszetika eta erlijio-dibulgazioko lanak euskaratu beharrean aurkitu baitziren itzultzaileak, ez hainbeste Jainkoaren hitza bere hartan emateko premiarekin, eta horregatik testuen alderdi pragmatikoa irabazian atera zen; ondorengo itzulpen gehienei, sorburu-hizkuntza eta xede-hizkuntzaren arteko oreka handiagoa nabari bazaie ere, ez dira erabat aldentzen joera formalistatik eta belaunaldi batekoek beste batekoekiko beren diferentziak beldurrik gabe adierazten zituzten Haranederrek S. Povvreauren zenbait itzulpenekin egin zuenez. Gehienera ere esan dezakegu, XX. mendearen lehen herenean finkatu zen «zentsuzko» itzulpenerako bidea ezarri zela aurre-

ko mendeetako erlijio-testuen itzulpenarekin, Larramendi, Mogel, Duvoisin, Arrue eta abar bezalako enraginez. XIX. mendearen azken aldera, Azkuek Hiztegiaren sarreran aipatzen dituen zenbait katixima izan daitezke joera horren salbuespen³.

Zizeron lehen formulatzaile izan zuen eta kristauen artean San Jeronimo edo Lutero, arabiarren artean Maimonides eta Aro Modernoan Tytler edo Dolet bezalako itzultzaileen eraginez pixkanaka finkatuz joan zen «zenezuzko itzulpen» deritzan iharduera hori literatura laikoan gero eta barrenago sartu eta hitzez hitzeko itzulpenaren akatsak gainditu beharraren ondorioz sortu zen. Itzulpen mota horrek jatorrizkoaren zentzu orokorra xede-hizkuntzaren nortasuna errespetatuz eman nahi du, eta aurrerapen nabaria da hitzez hitzekoarekin alderatuz gero; alabaina testuaren forma behar adina kontutan ez hartzean, jatorrizko testuaren ezaugarri historiko, sozial, nazional eta indibidualak galtzera ekartzen zituen neurri handi batean.

Euskara eta euskal literaturari dagokienez, «zenezuzko itzulpenaren» aroa Orixerekin hasten da 20. urteen hamarkadaren azken aldera Iruñeko Udalak Sanferminak zirela-eta, 1928an antolatutako literatura sariketan, eta euskarazko sailean, Cervantesen *Don Quijote de la Mancha*-tik IX. atala euskaratzea proposatu eta saria jaso zuten bost itzulpenen artean lehentasuna Orixerenari ematean⁴. Irabazleak berak aro berri baten hasieran zegoelako poza adierazten du. Lizardik, bere aldetik, ez du poz txikiagoa azaltzen: Orixeren itzulpena irakurri eta erduetan eredu garrientzat jotzen du itzulpenak izan ohi dituen arrotasun edo gordin-antzik nabari ez diolako. Areago oraindik: zenbaitetan jatorrizkoa gainditzan duelakoan ere badago. Puntu horretan, «zenezuzko» itzulpen-joeratik irten eta Ljudskanovek «*traduction libre*» deitzen duenaren alorrean ere sartzen gara, nahiz eta Mouninek «*les belles infidèles*» deitu duena bezalako arorik gure artean aurkitzen ez den. «*Trátase de un trabajo de positivo mérito, más atento a interpretar el genio de la lengua que a copiar en detalle el modelo. (...) Espontáneo, sobrio, fluido, expresivo, quizás a las veces lo supera suprimiendo hartas redundancias y alguna oscuridad*»⁵.

Aurrerago, «Traducciones-Diccionarios» artikuluan⁶ Lizardik itzulpena euskara modernotu eta aberasteko tresna egokitzat jotzen du eta Orixek «Orientaciones literarias» izenburupean egunkari berean (Euzkadi, 16-XII-1928) literaturak ageri duen egoeraren, «gramatikismoaren» kritika bat eginez, itzulpenaren premia azpimarratzen du: «*Hay que assimilar lo bueno de fuera. No se puede alimentar uno, por decirlo así, del mismo organismo, con perjuicio de él. Consiguientemente, se ha hablado de las traducciones*». Orduan ere, azken urteotako beste zenbaitek bezala, itzulpenaren ideia ez zuten oso begi onez ikusten eta Orixe, Lizardi bezala, itzulpen-beharrizanaren alde agertzen da, Zizeronek grekotik latinera bezala, berak ere erdaratik euskarara itzuli nahi duela aitortuz.

1929an, Orixek *El Lazarillo de Tormes (Tormes' ko itsu-mutilla)* euskaratzen du eta itzulpenari burutzeko erari zegokionez garaiko iritziak laburbilduz Lizardik hiru hitzetan adierazten ditu euskaratze-lanaren ezaugarriak: zehaztasuna, banatasuna eta inpresioa substantiboetan (*conciación, división e impresión*). Inpresio hitzaz Lizardik eskuarki «itzulpen libre» esamoldeaz adierazi dena izendatu nahi zuen, berak ageriki aitortzen duenez, eta horrela ulertzen da jatorrizkoaren VII. kapitulua osoki berak asmatutako beste batez ordeztea ere, bere kontzientzia moralak halakorik euskaratzea onartzen ez ziolako. Kasu horretan, «ohitura onen» izenean Orixek egindakoa, beste itzultzaile batzuek «gustu ona» edo hizkuntz fineziaren izenean ere egin izan zuten aurreko mendeetan, esamolde arrunt edo zakartzat jotakoak leunduz.

1930ean Lauaxeta adiskideak Mistralen *Mireio* luzatu zion euskara zezala eskatuz, eta obra hori ere kritikarien laudorio ugarirekin eta jadanik ezaguna dugun itzulpen zentzuzko eta librearen teknika nahasiak erabiliz itzultzen du, horrela ondorengo urteetan gatzatuko zuen *Euskaldunak* poema burutzeko lehen pausuak eman eta eskema finkatuz.

Urtebete geroago Aita Olabide jesuitak grekozko jatorrizkotik egindako *Itun Berria*-ren itzulpena argitaratzen du (Verdes Achirica, Bilbo, 1931), batzuen aldeko, besteen kontrako iritzien eta askoren

isiltasunaren erdian; nahiz eta Orixek itzultzeko bere erarekin alde-ratuta, askoz hitzez hitzekoagoa den gasteiztarraren testuaz bikain itzulita dagoela dioen eta ezagutzen dituen itzulpenetatik besterik ez duela hain lotu, zehatz eta indar handikorik ezagutzen, «gramatikis-moaren» ikuspegitik kritikatzan dutenengandik babestuz.

P. Iztuetak *Orixe eta Bere Garaia V*-n (662 or.) laburbiltzen due-nez, gerraurreko epealdi honek «euskal literatura gorenaren zatirik funtsezkoenetako bat osatzen du», zeren itzulpenak beharrezkotzat jotzen baitziren «euskara aberasteko, beste hizkuntzen kualitateak ezagutzeko, lumak trebatzeko, etab.»⁷.

Gerra-ondoan, 1950ean *Urte Guziko Meza-Bezperak* obrarekin hasi eta *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* (1956) eta *Itun Berria* (1967) obrekin jarraituz Orixek bere itzulpengintzaren gailurra ematen du, eta aitortu ere halaxe aitortzen du, Hiponakoaren *Confessiones* obra euskaratzean. Halere, 1949an itzulitako *Gizonaren Eskubidegaien Aitorkizuna* izango da 1976an J. Azurmendik Orixeren ikuspegi linguistiko eta traduktologikoaren kritika egiteko eredutzat erabiliko duen testua. Nola esplika daiteke gailurrean egotetik hain urte gutxiaren buruan Orixe eta bere itzulpengintza kritikatuak eta auzitan jarriak izatera pasatzea? Orixe 1961eko abuztuaren 9an hil zen eta handik lau urtera agertu zen *Orixe Omenaldi* (1965) liburuan A. Ibinagabeitiak «Orixe Euskeratzalle» artikulua luzean, noiz edo behin erreparatu txikiren bat iradokitzen bada ere, orokorrean bere garaikideek *Mireio*, *Urte Guziko Meza-Bezperak* eta *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* obren euskaratzaileari zioten miresmenaren lekuko eta aldarrikari gisa ageri zaigu, eta Mitxelenaren hitzak erabiliz, Orixe itzulketarako eredutzat proposatzen du⁸.

Hamar urteko epean giroa eta iritziak nola aldatzen diren ikusteko P. Iztuetak «Jesuiten Eskolaren bukaera eta Orixeren beherakada»⁹ izenburupean aipatzen dituenak, laburki bederen, kontutan hartu beharrean gaude. Hirurogeigarren urteen hamarkadan hasi eta hurrengoan sendotuz joan zen belaunaldi, gizarte, ideologia eta sentimendutik oso bat garatzen da Euskal Herrian, gerra inguruan Orixeren mundua taiutu zuten balioak neurri handi batean gainditu eta haiei

zegozkien eskemak hautsiko zituena: euskal fededunismoa, klasizismo greko-latinoa, neologismo etimologikoetarako joera. Zaharrago eta gazteagoen arteko tirabira horretan K. Mitxelenaren bitartekaritzak izan zuen eraginik, hizkuntzaren etorkizunari zegokionean bati-pat, E. Olabide, G. Barandiaran eta beste zenbaiten lanak orekatu kritikatuta eta Txillardegi bezalako balio berriei atak irekitzean. Tartean sortu ziren gatazken artean, Orixek eta Intxaustik *Jakin* aldizkarian⁹ metafisikaz izan zuten eztabaida dago. Baina Orixeren egiazko destronuratzeara 1959-1960an hasten dela aitortzen digu P. Iztuetak Mitxelena, Txillardegi, Intxausti bezalako zenbait izenekin; horregatik *Orixe Omenaldi* (1965) liburuak orexarra berpizteko egiten dituen ahaleginak, idazle-sektore baten oihartzuna jasotzea besterik ez du egiten. Eta horrela, J. Azurmendik *Zer dugu Orixen kontra* (1976) argitaratzean, belaualdi gazteak bere iritzi eta sentsibilitatea isladaturik ikusten ditu bertan ideologia, linguistika eta traduktoologiari dagokionez ordura arteko eredu ukiezina izan zenaren kritika zorrotza bezain orekatuan.

Orixerekin euskararen baitan, Zizeron erromatarrarekin hasi eta Frantziako «*les belles infidèles*» aroarekin gorena jotzen duen joera bat, itzulpen «zentsuzko/librea» dei genezakeena muturreraino iritsi eta ixten da, ahalbide eta esperimendu gisa, parez pare eta hizkuntz purismo beraren lurretik ernea zen Olabide eta aranatiarren hitzez hitzeko joerek ere, zerbait lehenago, zakukoak atera eta zeukaten guztia eman zuten bezalaxe.

Euskal Herria eta euskal kulturaren premia berriek (ez dezagun ahaztu ikastolak sendotu eta garatuz zihoazela, eta «Lur», «Gero-Etor» bezalako lehen entseiu-bildumak plazaratzen ari zirela) «euskaldunberri» deituak ugaltu ahala etno-exozentrismoarekiko joera orekatuagoa, europartasun modernoan kokatu beharra, testu erlijioso eta literarioez gainera gero eta testu pragmatiko/faktual gehiago zehaztasunez itzuli beharra (ikasliburugintza eta kazetaritza lehen pausak ematen ari ziren) eta abar dira itzulpen-joera berri baten, Ljudskanovek «*adéquate*» deitzen duenaren eragile¹⁰. Joera hori 70. urteen hamarkadan hasten da intuizioz eta prosagintza berriarekiko konpli-

zitatean garatzen da X. Kintana, J.R. Etxebarria, X. Mendiguren eta abar bezalako itzultzaileen eraginpean eta 80. urteen hamarkadan aurkitzen du bere formulazio teorikoa Martuteneko Itzultzaile-Eskolaren markoan, harrez gero euskararen baitan errotu den joera ia bakarra izaki.

XVIII. mendearen lehen hamarkadetan garatzen hasten den joera berri honek fideltasun handiagorako isuria ageri du; forma eta edukia ahalik eta batasun estuenean ematea helburu duelarik, berorri esker teoria eta praktika ados jarri dira lehen aldiz itzulpenak, jatorrizkoarekin alderatuta, informazio aldaezin edo iraunkorra eman behar delakoan. Itzulpen «egoki» dei dezakegun horretarako lehen pausak itzulpen literarioei begira eman zituzten Leconte de Lislek Frantzian eta Schlegel eta Schleiermacherrek Alemanian.

Antzinatean testu zientifiko gutxi itzultzen zen eta ez zezaketen eragin handirik izan testu erlijioso-literarioen baitan; baina XVIII. mendean geroztik, eta batez ere XIX.ean, testu zientifikoak itzuli beharra ezinbesteko bihurtu zen Mendebaldeko gizartean. Ondorioz, itzulpen literarioa eta «teknikoa» orekatzen hasten dira. Praxis horretatik sortutako gogoetak itzulpena jatorrizkoaren birsorketa zehatz gisa ikustera eramaten du eta ondorioz itzulgarritasunaren auzia planteatzera: itzulpen absolutua, itzulpen-argazkia ezinezkoa da, baina itzulpen funtzionalak gero eta hurbiltasun handiagoko prozesu gisa bere burua ikustea ahalbidetzen du. Honen ondorioz itzulpen literarioa bera ere beste modu batera ikustera jo da eta alderdi semantiko, estilistiko eta pragmatikoen sintesi orekatu gisa hartzen da gaur egun testu literarioaren itzulpena, batak bestea irentsi edo lausotu gabe.

Aipatu dugun itzulpen-joera hori, ordura arte, «*les belles infidèles*» itzulpen librearen erresuma izan zen Frantzian eta Diderot eta D'Alembert bezalako idazleen eskutik jaio zen, jatorrizko testuan arrotza denera moldatu edo egokitzeke zaletasunak bultzaturik. Colardeau¹¹ garaikideak itzultzearen meritua, ahal izanez gero, jatorrizkoa hobetu, edertu, norberetu, kutsu nazionaler hornitu eta landare arrotza nolabait etxekotzean jartzen zuen unean, bi entziklopedista horiek nahiago izan zuten Jauféré Rubel trobadorearen esamoldea be-

rentzat hartu eta itzulpena «urrunekoaren ostatu» (*auberge du lointain*) bihurtu.

Alemanian joera horren erroak Goethe berarengan aurkitzen ditugu hiru itzulpen-mota aipatu, eta lehen biak *eskolastikoa* eta *parodikoa* alde batera utzirik, hirugarrena, *integrala*, jatorrizkoa eta itzulpena bat egiten dituen nagusitzat jotzean¹². Baina Schleiermacher da joera horren teorilaririk nabariena eta jadanik klasikoa den eran argudiatzen du, esanez, adiskidea ezezagun batekin toparazteko bi modu desberdin daudela: ezezaguna adiskidearengana ekartzea édo adiskidea ezezagunarengana eramatea, hau da, itzulpengintzari dagokionez, jatorrizkoaren autorea irakurlearenganatztea edo irakurlea jatorrizkoaren autorearenganatztea¹³. Pentsalari alemaniarraren ustez, itzulpenak bitarikoak dira kautoak edo ez-kautoak, autoreak idatzi duena itzultzaileak bere ama-hizkuntzan idatzi izan balu bezala itzultzen duenean benetakotasuna galarazten diola aitortzen du. Schleiermacherrek nolabait erakusten du bere garaiko Alemanian oraindik artean hizkuntza nazionalak ez zeukala bere buruaren baieztapena egina, zeren bere ustez, beste hizkuntzak diferentzian onartzeko ez baitzen gai, eta bere burua garatu ez duen ama-hizkuntzak «partzial» izaten jarraitzen duela aitortzen du, «osagarritzat» frantsesa edo latina erabiltzen jarraitzen duena (gure kasuan jar bitez: gaztelania, frantsesa eta ingelesa). Horrela alemaniar kultur elebitasun horrek trabatu egingo du ama-hizkuntzaren eta itzulpenen loratzea atzerriarekiko, arrotza denarekiko irekitasunik ez, baizik menpetasuna erakusten duelako.

Itzulpen kautoak baditu arriskuak, baina horiei aurre egiteak esan nahi du kulturak baduela konfidantza bere buruan. «Hori arte eta neurriarekin burutzea, norik bere buru eta hizkuntzari kalterik egin gabe, hori da agian gure itzultzaileak gainditu beharreko zailtasunik handiena»¹⁴, zeren arrotza den hori ama-hizkuntzan aurkezteak arriskuan jartzen baitu hizkuntzaren etxeko ongizatea (*das heimische Wohlbefinden der Sprache*), Herderrek «birjintasuna» deitzen zuen hura bera.

Hizkuntzaren garbitasunaren alde kezuka ari direnei, pentsalari alemaniarrek ama-hizkuntza mito bat dela esaten die, ez dagoela horrelako garapen isolaturik eta hizkuntzen artean askatasunezko harremanekin ordeztu beharreko menpetasunak daudela. Zehatzago esateko, birjintasuna gorde nahi duen alemaniera jadanik frantsesak kutsatu eta menperaturiko alemaniera dela, eta hain zuzen ere, itzulpenak egin diren tokian menperakuntza gutxiago dagoela.

Halere, supituki eta era zakarrearan egoera batetik bestera igarotzearen arriskuez jabeturik dago Schleiermacher, eta horregatik aipatzen du hizkuntza batekoa edo bestekoa izatea aukeratu beharra, «atsedenik gabe bitarte higuigarri batean flotatu nahi ez bada».

Ingalaterran, F.W. Newman, Carlyle eta W. Morris, *Iliada* eta *Eneida*-ren ingeleseratzailea aipatu behar dira joera honetako itzul-tzaile gailenen artean.

Errusian Tretjakovski, Karamasin, Gogol, Belinskij, Dobroljubov, Txernisevskij, Turgenev eta abar izan dira joera berekoak baina Puxkinenganaino atzeratu behar da erroak aurkitzeko. S. Gontxarenko, poeta eta traduktologo errusiarrak dioenez, azken herrialde horretan ere, «dena besarkatzeko moduko itzulpen teoria bat sortzeko gure garai honi dagokionez, iraganeko lan trinkoenek ere zituzten kontraesan guztiez gabetua, denbora luzea eta ahalegin sortzaile ugari behar izan da. Arazoak konpontzeko orduak sobietarren aroan soilik jo du, duen garrantziarengatik gobernu bera itzulpen literarioaz arduratu denean»¹⁵.

Praxia eta teoriaren oreka bila

Euskal Itzulpenaren behar bezalako historia bat ontzeko oraindik materialak garraiatzen bakarrik hasi bagara ere, nik uste huts egiteko beldur handirik gabe esan litekeela jadanik joan den 80. urteen hamarkadan euskal itzulpengintzak bi eguneratze-ahalegin egin zituela: alde batetik, esan dugunez ordurako aurreko hamarkadatik hasita zegoen eta Europako zenbait herrialdetan XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean zehar burutu zuten itzulpen «egoki» edo «in-

tegralarekiko» topaketarena eta, bestetik, Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren, europar herrialde horietan berorietan egin zen praxia eta teoriaren uztartzearena, itzulpena eta interpretaritzaz gizartearen eskarira zuzenduz. »

Lehen eguneratzea, Duvoisinena bezalako zenbait hurbilpen gorabehera, ia bi mende beranduago burutu badugu ere, bigarrenean bizkorrago ibili gara kontutan baldin badugu 1947an egin zuela E.A. Nidak abiaburu linguistikoen ikuspuntutik itzulpena tratatzeko bere ahalegina¹⁶, Casagrande-Voegelin hizkuntzalari bikoteak 1954ean proposatu zituztela itzulpen-korrespondentziak askozaz sistematikiago aztertzeko metodo garrantzizkoak eta azkenik, jadanik klasiko bihurtu diren Fedorov¹⁷ eta Vinay-Darbelneten¹⁸ lanek 50. urteen hamarkadan ikusi zutela argia.

Euskal Herriari dagokionez, 1976an antolatu zen itzulpenari buruzko lehen ikastaldia Arrasateko Lanbide Eskolan, CIM-AHIZKE hizkuntz irakaskuntzarako zentruaren babespean, eta Martuteneko Itzultzaile-Eskolak bere atea 1980an ireki arteko epean, beste lau antolatu ziren UEUren barruan, Ustaritz, Iruñea, Santutxu eta Arantzazun, azken hori Eliza Ebanjelikoaren ekimenez Biblia euskaratzeko taldearen prestakuntzarako Tubingako Unibertsitateko Hans Peter Rürger Doktoarearen zuzendaritzapean. Laugarren ikastaldia berriz ere Iruñean eta UEUren egitarauaren barruan antolatu zen, UZEI eta atea irekitzeko zorian zegoen Itzultzaile-Eskolarekiko harremanetan; jardunaldi praktikoa haietan testuak itzuli, konparatu eta kritikatzear gainera, itzulpen-munduari eta euskal itzultzaileen antolaketa profesionalari buruzko informazio orokorra eskaini zen.

Euskaltzaindiak, Joan San Martin bere jagon-sailburuaren bitartez, 1979. urtearen azken aldera Xabier Mendigureni eskatu zion Itzultzaile-Eskola bat sortzeko aurretikosten bat presta zezala eta hark hurrengo urteko maiatzaren 28an ezarri zuen euskaltzainen eskuetan «Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola»¹⁹ dossier-aurreproiektua. Handik gutxira Euskaltzaindiak Eskola sortzea erabaki zuen eta finantzabidea segurtatu ondoren, 1980an ireki zituen bere atea Itzultzaile-Eskolak Donostiako

Aurrezki Kutxa Munizipalak Arbideko Dorreetan utzitako geletan. 30 pertsonaz osaturiko lehen ikasle taldeak bi urteko ikasketak burutu zituen eta honako gaiak izan zituen ikasprograman: euskara eta euskal literatura, gaztelania eta erdal literatura, linguistika orokorra eta estilistika, itzulpen teoria eta praktika, euskal itzulpenaren historia eta testuen konparaketarako metodologia.

Itzultzaile-Eskolak hurrengo bi promozioei hiruna urteko ikastaldiak eman zizkien eta sorreratik hamar urtera bitartean zenbait estuasun eta eragozpen bizi izan ondoren, bere atek ixtean, ikasturte eta ikastaldien bitartez bostehunen bat ikasleri itzulpenerako prestakuntza-motaren bat emana zien. Eskolaren jardunez, zenbait ikasliburu eta SENEZ aldizkaria sortuta zeuzkan itzulpenaren teoria eta praktika jendartean barreiatzeko, eta EIZIE, Euskal Herriko Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte, eraiki eta lehen antolaketazko urratsak ere ematen hasita zegoen. Bestalde, zeharka bederen Eusko Jaurlaritzak Gasteizen IVAP-HAEEren eskutik, administrazio-itzulpenerako sortutako eskolaren baitan ere izan zuen eraginik eta 90. urteen hamarkadarekin batera, Deustuko Unibertsitatean lehenik eta Euskal Herrikoan ondoren, itzulpen-masterrak bideratzekoan ere eragin nabaria izan zuen. Une honetan ere, Gasteizko *campusa* itzulpen eta interpretaritzako lizentziatura prestatzen ari delarik, EIZIEK etorkizuneko karrera horretan eskuhartze eraginkorra du behialako Martuteneko Eskolako kide izan ziren irakasle eta ikasleen bitartez.

Baina 80. urteen hamarkadan itzulpengintzari dagokionean emandako pausuak aipatzean, Itzultzaile-Eskola erreferentzia nagusi eta ezinbestekoa bada ere, Autonomi Estatutuaren ondorioz komunikabideek, irakaskuntzak eta administrazioak sortutako dinamikak itzulpen-eskari eskergak eragin zituzten eta beti ez da lortu erantzuteko behar adinako oinegoturarik, eta areago, ez dugu uste Administrazioa eta Unibertsitatearen aldetik behar adinako eta bezalako jaramonik egin izan zaionik gai horri. Horregatik, pixkanaka erakundeek eta gizarteak, oro har, beka, sari eta «Literatura Unibertsala» edo «Pentsamenduaren Klasikoak»²⁰ bezalako proiektuen bitartez itzulpenari abegi egin badiote eta aldizkari eta komunikabideetan itzulpenari

buruzko artikulu eta albiste gehiago agertu badira ere, eta interpreta-ritza batzuetan tresna baliagarri gisa eta beste batzuetan era enblema-tiko hutsean gero eta gehiago erabili izan bada ere, itzultzaile eta interpretari berriak prestatu eta zaharrak birgaitzeari dagokionean uzkur agertu dira hezkuntza-arduradunak, hutsune horren ondorioak nabarmen daudelarik. Gehiago, esan liteke, itzulpengintzak ezinbes-tekoak duen lexikologia eta gramatikazko oinegitura bera ere ez dela behar adina bultzatu eta euskara batzeari dagokionez pausu nabar-menak eman badira ere azken hogeita bost urteotan, oraindik grama-tika eta hiztegi arauemaile osaturik gabe aurkitzen dira itzultzaile eta idazleak euskara beraren baitan, eta are gabeago erdal hizkuntzeta-rako zubi diren hiztegi eta gramatika elebidunen alorrean. Bestalde, filologiatik linguistika eta soziolinguistikarako pausu nabariak eman badira ere, oraindik diskurtsoaren analisisa, pragmatika, testologia eta literatur estilistikari berari ere dagokionez informazio urri samarra-rekin gabilta gure artean eta gabezia horiek nabarmendu egiten dira itzultzaileon praxian.

Itzulpena eta euskararen arteko harremanak

Orain arte aipatutako gehiena zifra eta gertakari handien inguruan ibili da: historia, kopuruak, joera nagusiak eta itzulpengintzarekin zuzenean eta estuki loturiko gertakari eta urrats nagusien berri eman dugu, nolabaiteko balioespenak eginez. Hori beharrezkoa zen non-dik gatozen eta non aurkitzen garen jakiteko, baina gure jardunaldiei dagokienez, hori guztia bezain garrantzizkoa eta seguraski munta handiagokoa ere bada, azken urteotako itzulpengintzak, euskararen baitan, prosagintzan izan duen eragina azaletik bederen aztertzea. Zuhaitzak hurbilegi dauzkagu oihanaz ongi hitz egiteko eta esatera noanak behin-behineko zuin-balioa besterik ez luke izan nahi; bali-teke arestiko urak baretu eta jalkinak patxadatzean gauzek itxura zer-txobait bestelakotzea, halere azterketa moduren bat egitera ausartu beharra dagoelakoan nago.

Orixe buru zuen gerra-aurreko eta osteko belaunaldiaren euskara-ren eredia, hain zuzen J. Azurmendik eta P. Iztuetak jadanik aipatu-

riko beren liburuetan gatazka-giroan deskribatu eta aztertzen dutena, 50. urteen hamarkadaren azkenetatik hasi eta auzitan jarria zegoen Krutwig, Aresti, Txillardegi, Mirande, Kintana eta abar bezalako «euskaldun berri» andana luze baten eraginpean eta *Euzko Gogoia, Egan, Jakin, Anaitasuna, Zeruko Argia* eta beste zenbait aldizkariren inguruan errelebuia prestatzen hasita zegoen, Mitxelenaren begirada eragile-moderatzailearen pean. 70. urteen hamarkadaren hasieran beren tituluak ugaltzen hasiak ziren Lur, Kriselu, Etor/Gero bezalako editorialak gai berriei buruzko itzulpen eta saiaketak argitaratzeari ekin zioten. Titulu batzuk zuzenean itzuliak ziren, moldaketaren batzuk gorabehera, eta jatorrizkotzat ematen ziren saiakera asko eta asko ere material itzuliz moldatuak ziren. Batez ere gaztelania, frantses, ingeles eta alemanez idatzitako testu filosofiko, soziologiko eta teknikoak euskaratzeak ardatz sintagmatikoan ordura arte ez bezalako baliabideak erabiltzera bultzatzen zuen: perpaus luzeagoak, subordinazio ugariagoa, erlatibo atze-ezarria etab.; zenbait idazlek proposatzen zuten Leizarraga eta Axularren ereduak ordura arte zorrotz ezarrita zegoen S. Altuberen eredu sintaktikoa gainditzeko bideak urratzen zituen purismoaren hesi estuak gaindituz, nahiz eta lehen urteetan esperimentazioak pixkanaka eta dosifikaturik egin. Zentzu horretan, I. Sarasolak egindako Voltairen *Kandido* (1972, Donostia) obraren itzulpena, adibidez, gogoangarria da, besteak beste, bere ekarpen sintaktiko ausartarengatik. Oraindik alde nabariak bazeuden ere idazle eta argitaletxeen artean, Lur, Kriselu eta zenbait «euskaldun berri» urratutako bidea pixkanaka usuariozko moldeak hausten hasi zen. Bestalde, euskal prentsak ere hizkuntza periodistiko eta informatiboari zegokionez tradizioz ez izatean, esposizio eta deskribapenerako balioko zuen hizkuntza funtzional eta standard bat lantzen hasi behar izan zuen. Horrek ere joskeran eta hiztegian bide berriak urratzera bultzatzen zuen.

Ardatz paradigmaticoari dagokionez, gauza bera esan behar da, zeren arantiarren purismo lexikala *Neurritzia*-n (1972, Gasteiz) osoki edo Larrakoetxearenak bezalako itzulpenetan tarteka agertzen bazen ere, azken urteetan Orixeren gidaritzapean nagusitu zen hizperrigintza «jatorragoak» agintzen zuen bere ondorio murriztaile guztiekin,

eta inor gutxi ausartzen zen bide hartatik aldentzera, nahiz eta bertan sarritan aski deseroso sentitu. Horrela ulertu behar da J. Intxausti, Mitxelena, Orixe eta Txilardegiren artean batipat sortu zen idatzizko gatazka, ondorioz tradizioaren haustura ekarri zuena²¹, eta J. Azurmendiren oihua: «Euskarazko idazkintza guzvia literatura ederragandiko dependentzia oso bat sofritzen dago», eta akiakularik gabe urratu behar izan ziren Orixeren ereduak zituen hesiak irakaskuntzako ikasliburuak, saiakerak eta kazetaritzako testuak euskaratzean, mailaguak eta kalkoak erruz onartzuz, eta ondare greko-latinoa inolako zalantzarik gabe gureganatuz.

Oro har, esan daiteke itzulpegintzak sintaxia malgutu, luzera handiagoko egiturak antolatu, hipotaxia edo subordinazioa, lehen parataxia edo koordinazioa nagusi ziren tokian berrezarri eta, ondorioz, prosagintzan orekatukiago erabiltzen lagundu duela, juntagailuen erabilera ere ugalduz. Hiztegiari bagagozkio berriz, hitz batean, ugaritu, zehaztu eta inguruko erdal hiztegiarekiko homologatu egin du, zentzu bietako itzulpena erraztu eta erosotuz. Ildo honetatik UZEI, Elhuyar, ikasliburugintzak azken bi hamarkadetan burutu duten lanak, eta, bestetik, berriki literatura unibertsala eta pentsamenduaren obra klasikoak euskaratzeak, euskal lexikoan hogeita bost urteotan burutu den oinarrizko finkatze-lanari amaiera emango diote, hasi berria den entziklopediagintzarekin batera. Beste era batera esateko, itzulpegintzak nabarmen aldatu du usuariozko euskal lexikoak ageri zuen paisaia kantitatez eta kalitatez: kopurua nabarmen ugalduz eta inguruko erdaretako altxor arruntean eta mintzaira kultuan ohizkoak diren hitzak mailegu eta kalko erara euskararen baitan txertatuz, ondorioz, euskal hizperrigintzaren hedabideak errotu eta finkatuz.

Baina itzulpenaren ekarpen hori ez da sintaxi edo lexiko soilera mugatzen, prosa-mota berri batera materialak garraiatu ere egin ditu, bai literatura eta bai prosa zientifiko-teknikoa euskaratzean, itzulika, esamolde eta klitxe berriak ezezik erritmo berri bat sortaraziz. Egia da, zenbaitu gordinegi zaizkiola eta batek baino gehiagok Orixek meza-liburuaren atarikoan aipatzen zituen eta euskarak behar omen dituen «operazioak» astiroago egitea opa izango zukeen, baina ez dago

aukeratzerik: errealitateak bere indarrak ezartzen dizkigu eginbeharrak eta ordutegiak. Harako Prokrustes lapur mitologikoaren harripakinek bezala moderniarene eskakizun-ohera moldatu beharrez, batzuetan badaezpadako aberastasunak uztera eta bestetan, bortxaz tiraka geure lohadarrak oinazetan luzatzera derrigorturik aurkitu izan gara, hitzak behar adina umotu eta gozatzeko behar besteko astirik gabe. Zenbaitek sedukzioaren lilurapean aldaketak egin nahiko zituzkeenean, bortxazko egintza zakarrez ernaldutako askazi borta onartzera beharturik aurkitu bide da. Erronka handiei, gehiegi prestatu gabe eta epe laburrean erantzun eta aurre egin beharrean izan gara eta ez da harritzekoa Herkulesen lanen parekotzat jo zitezkeen horiek burutzean intziriak entzutea, ontzia ontziziolatik bidaiarako itsasoratzean txirriken kirrinkak eta zurajearen grakadak entzuten direnez.

Azkenik eta laburpen gisara, J.M. Zabaletak²² Martuteneko Itzultzaile Eskolaren 10 urteak betetzean egindako gogoeten ildotik, euskal itzultzailea oraindik «normaldu» gabeko hizkuntza batekin ari dela lanean gogora ekarri beharra dago, eta neurri handi batean berari dagokiola egiteko hori burutzea, ez zientzia eta administrazioan bakarrik, baita komunikabideetan ere. Egiteko horretan terminologoez eskuratzen dioten laguntza eskertzekoa eta ezinbestekoa bada ere, azken erabakia berak hartu behar izaten du mezu bakoitzaren helburu komunikatiboaren arabera.

Bestalde, euskal itzultzailea etengabe hizkuntz interferentziak sortarazten dituen populazio elebidun baten artean bizi da eta horrela, itzulpena sarritan interferentzia eta kutsadura izaten da, nahiz eta paradoxaz itzulpenari, oraindik erabat galdu ez duen zeregin enblematiko horren izenean, purista eta aldi berean komunikakorra, garbia eta ulergarria izatea eskatzen zaion. Gainera euskal itzultzaileak gaztelaniatik itzultzen du nagusiki, ia bigarren ama-hizkuntza duen batetik, eta hori zenbait teorikok aditzera eman duenez, ez da izaten oso mesedegarri itzulpenarako, zeren hizkuntza eta kulturazko hurbiltasun eta ezaguera-maila nabari horrek itzulpen-prozesua behar adina aztertu gabe jardutera bultzatzen baitu sarritan.

Azkenik—*last but not least*—, esan dezagun euskararen itzulpen-merkatua oraindik urrun samar aurkitzen dela merkatu «normaletik», edo inguruko hizkuntza garatuenetik: horietan itzulpen komertzial-industrial-zientifiko-teknikoak ia %80a hartzen du; itzulpen juridikoa %10 ingurukoa da eta prentsa, audiobisual, literatura, irakaskuntza eta abar batean harturik beste %10a osatzen da²³. Gure artean itzulpen komertzial eta tekniko-zientifikoa hutsaren hurrengoa da eta administrazio- eta komunikabide-itzulpenak hipertrofia nabaria du beste sailekiko, nahiz eta urtez urteko liburugintzaren berri-ematean haur eta gazteen literatura (%62,2) eta irakaskuntzako liburua (%33,5) izan helduen literatura baino zerbait aurrerago (%37,4) kopuru hazienak ematen dituztenak²⁴.

Euskal Itzulpegintzaren etorkizunari begira

Etorkizuneko euskal itzulpegintza bi zutabe sendoren gainean landatu behar da: prestakuntza akademiko egokiaren eta lanbide-estatus ongi finkatuaren gainean. Baterako zein besterako, bai gaurko errealitatearen ezaguera eta bai etorkizun hurbil eta ertainaren prognosia, beharrezko zaizkigu. Bestela esateko, gure merkatuaren bilakaeraren berri jakitea beharrezko dugu Europako ekonomi esparruaren barruan, iparraldea eta hegoaldea gero eta plan bateratuagoe-tara ekarriz eta euskara beste hizkuntzekiko kontzertuan sartuz. Halaber, jakin beharra daukagu euskara benetako lokarritzat eta zer neurritan erabiliko dugun iparraldea eta hegoaldearen arteko harremanetan ere.

Itzulpen-ikasketei dagokienez ez da derrigorrezkoa Unibertsitatean kokatzea ongi funtzionatzeko —Brussela eta Monseko Eskolen kasuak hor daude lekuko gisa—, baina gure egoeran nekez aurki liteke kokagune egokiagorik ikasketa horiek behar duten trataerarako; halere, tentazio «filologizista» eta «linguistizista» guztietatik ihes egin, disziplinentekotasun orekatua lortu eta dinamismo etengabea aldatuz doan merkatuarekiko loturari eusten bazaio bakarrik izango dute itzulpen-ikasketek behar duten maila eta malgutasuna. Dagoeneko Gasteizko *campusean* egina dute lau urteko karreraren diseinua eta

berori abiarazteko finantzabide eta irakaslego egokia lortzen bada, epe laburrean itzulpen eta interpretaritza-karrera amets izatetik egia izatera pasatuko da.

Lanbide-estatusari dagokionez, Estatu espainoleko APETI, EIZIE, ATG eta AICE elkarteen artean burutu eta jadanik zirriborria prentsari aurkeztu ere egin zaio Madrilen; etorkizun hurbilean Parlamentuan aurkeztu beharko da itzultzaile eta interpretari-lanbideak betebeharrak ezezik eskubideak ere izan ditzan eta bere jardun-esparrua ongi zedarritu eta babesturik eduki dezan. Erreferentzia eta marko juridiko horiek gabe, gure lanbideak nekez izan lezake batasunik jadanik lanean ari direnen eta aurrerantzean titulu akademikoekin Unibertsitatetik aterako direnen artean, ezta intrusismoari kontra egiteko tresnarik ere.

Baina «itzulpenaren kultura» deitzera ausartzen naizenak hori baino hedabide sakon eta zabalagoak behar ditu gure gizarteko premiei aurre egiteko. Hiruzpalau hizkuntzarekiko harremanean bizi behar duen gurea bezalako gizarteak sinetsirik egon behar du, «bertan goxoka» ari diren badaezpadako lamien kontra, Schopenhauerrek duela mende bat esaten zuenez, «poliglotismoa, dituen berehalako abantailez gain, gogamena lantzeko bitartekoa dela gure pertzepzioak zuzenduz eta hobetuz sortzen diren kontzeptuen aniztasun eta errefinamenduarengatik. Aldi berean, poliglotismoak gehitu egiten duela pentsamenduaren malgutasuna zeren, hizkuntza asko ikastea, kontzeptua gero eta gehiago banatzen baita hitzetik»²⁵. Hori dena hizkuntz anomia batean erori gabe, eta horretarako hizkuntz ikaskuntzazko planak ongi diseinatu, koordinatu eta bitartekoz hornitu beharko ditugu eta horretan «kultura traduktologikoak» zer esan handia du hasi Eskolaurretik, OHO, BBB eta UBIn zehar Unibertsitate-raino. Gure gizarteak itzulpengintzak eta interpretaritzak eskaintzen dizkioten ahaltsun bikainez jabetu beharra dauka bere nortasuna zehaztu eta sendotzeko, nola hartzeko hala emateko, eta horretan gure idazle eta sortzaileek ere itzulpenaren erronka unibertsaltasun-faktore batek bere sormenari ezartzen dion desafio bezala ikusi beharra dauka. Izan ere, norbaitek ongi esan duenez obra ez da osatzen itzuli arte.

Eta orain arteko gogoeta aski luzeari amaiera emateko bi maisuren hitzak: «Arrotza dena beste hizkuntzetatik geurera aldatzeak bestela hautemango ez genituzkeen emozio eta kontzeptuak arakatu eta formulatzeko aukera ematen digu; eta itzulpengintzak etengabe hedatzen ditu gure hizkuntzaren muga linguistikoak. Itzulpenak hizkuntza hartzaileko hizperrigintza sustatu eta bertako egitura gramatikal eta semantikoei eragin egiten die. Zentzu horretan, itzulpenak hizkuntzaren indar biziberritzaile gisa dihardu. Hitz batean esateko, itzulpenari hizkuntza eta kontzeptuzko aberaste bezala begiratu behar zaio»²⁶.

Mario Wandruszkak, bere aldetik, «Interlinguistik» hitza proposatzen du hizkuntzaniztasunaren linguistikarako, eta zera dio: «Itzulpena gaur egun linguistikaren objektu bihurtu da eta ez dago linguistikarik itzulpenik gabe.» Giza hizkuntza ikertzeak hizkuntza batzuk beste batzuekin konparatzea esan nahi du, baina itzulpenaren bitartez konparagarri bihurtutakoa bakarrik konpara dezakegu. Itzulpena da linguistika ororen oinarria. Baina ez da onartu izan bere oinarriko problematzat. Hizkuntzalari askok gutxietsirik, jarduera «azientifikotzat», artisautzat, artetzat jotzen dute»²⁷.

Azkenik, Goethe, Schillerren iritzian «gizonik komunikakorrena zenaren eta «*Weltliteratur*» (mundu-literatura) kontzeptua sortu zuenaren gogoeta pare bat: «Mundu-literaturaren sorrera mundu-merkatuaren sorrerarekin batera gertatzen da: ondasun izpiritualen trukea da, herrien arteko ideia-trukea, mundu-merkatu literarioa, non nazioek beren altxor izpiritualak trukutzen dituzten». Eta hitzez hitz zioen: «Literatura nazionalak ez du jadanik gehiegi esan nahi, mundu-literaturaren orduak jo du, eta bakoitzak aro horren etorrera agurotzen ahalegindu behar du» (Eckermannekiko elkarrizketa, 1827ko urtarriak 31). Itzulpena nazio-literaturaren partetzat jotzen zuen Goethek literatura garaikide guztien bizikidetza edo elkarbizitza aktibo bezala ulertzen zuen mundu-literatura: «Mundu-literatura garaikideak, zeinahi nazionalitatetakoak direla ere, elkarrekin topo egin, kidetu eta batera diharduteneko gune izpirituala da»²⁸. Orain bi mendeko Alemanian Goethe honela mintzo bazen, zenbat arrazoi gehiago ez ote dugu guk hitz horiek berak errepikatzeke planeta osoa herrixka bi-

hurtu eta 2000. urtearen atarian gaudenok. Euskal itzulpengintzak mundu-merkatu eta mundu-literatur horretan bere txokoa bilatzen lagundu behar dio Euskal Herriari, bai berak daukana inori emateko, eta bai besteek eskainia hartzeko. Tratu ezin ederrago horretan zubi-gile izatea dagokigu itultzaileoi. Gure belaunaldi honi egokitu zaio euskal itzulpengintza, eta euskal kultura bera ere bai neurri handi batean, «tributik» «polisera» eramán eta moldatzea eta ingurune-ko hizkuntza garatuekin berdinez berdineko elkarriketan hasia, tradizioa eta modernitatea, etnozentrismoa eta exozentrismoaren arteko tirandurak zenbaitetan geure identitatea zalantzan jartzera inoak badira ere.

Oharrak

1. SARASOLA, Ibon, I. (1975): *Euskal Literatura Numerotan*, Kriselu, Donostia.
2. TORREALDAI, J. M. (1992): «1991eko Euskal Liburugintza» in *JAKIN*, nº 73, azaroa-abendua, Donostia, 91-101 or.
3. AZKUE, R. M. (1905): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao, 122 or.
4. *RIEV*, Nº XX. (1929), 6-9 or. Lizardik honela itzuli zuen izenburua: «Euskaldun zutiñak eta mantxar (Mancha'tar) bulardetsuak alkarrekin egindako burruka arrigarria amaitu eta azkentzea». (LIZARDI, Xabier, *Kazetari-Lanak*, op. cit. 241 or.)
5. *EUZKADI*, 20-VII-1928, 120-121 or.
6. *EUZKADI*, 7-VIII-1928, 125 or.
7. IZTUETA, P. (1991): *Orixé eta Bere Garaia-V*, Etor, Donostia, 662 or.
8. IBINAGABEITIA, A. (1965): «Orixé Euskeratzalle» in *Orixé Omenaldi*, Donostia, 87 or eta hh.
9. IZTUETA, P. op. cit., 991-1020 or.
10. LJUDSKANOV, A. (1969): *Traduction humaine et traduction mécanique* (1er fascicule), Centre de Linguistique Quantitative de la Faculté des Sciences de l'Université de Paris, Dunod.
11. In VAN DER MEERSCHEN, «Traduction française, problèmes de fidélité et de qualité», *Lectures* 4-5, Dedalo libri, 68 or.
12. Aip. in STÖRIG, H. J. (1969): *Das Problem des Übersetzens*, Wissenschaftliche Buchgesellschaft, Darmstadt, 34 or.
13. In STÖRIG, op. cit., 47 or.

14. «...dieses Kunst und Mass zu thun, ohne eigenen Nachtheil der Sprache, dies ist vielleicht die grösste Schwierigkeit die unser Uebersetzer zu überwinden hat». Aip. in STÖRIG, op. cit., 55 or.
15. GONCARENKO, S. F. (1978): *Ispanskaja poezija v russkich perevodach*, Moskva, 953 or.
16. NIDA, E. A. (1947): *Bible Translating*, New York.
17. FEDOROV, A. V. (1953): *Vvedenie v teoriju perevoda*, Moskva.
18. Vinay, J-P/DARBELNET, J. (1958): *Stylistique comparée du français et de l'anglais*. Méthode de traduction. Didier, Paris.
- 19) MENDIGUREN, X. (1981): «Itzulpenaren mundua eta Euskal Itultzailearen Oinarriko Prestakuntzarako Eskola-Dossier-Aurreproiektua» in *EUSKERA*, XXVI (2. aldia), Bilbo.
20. «Literatura Unibertsala» EIZIEK Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin sinaturiko hitzarmenez eta urtero hornitzen den aurrekontu batez ehun izenburu osatu arte mundu-literaturako obra-sail bat euskaratzeko proiektua da. «Pentsamenduaren Klasikoak» BBV, BBK, Gipuzkoa Kutxa, Vital Kutxa eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateek sorturiko lukroasmorik gabeko sozietate anonimoa da garai guztietako 100 pentsamendu-obra nagusienak jatorrizko hizkuntzetatik 10 bat urteko epean euskaratzeko.
21. Hausturaren nondik-norakoa jarraitzeko ikus: TORREALDAY, J. M. (1977): *Euskal Idazleak Gaur*, Donostia, 390 or.
22. ZABALETA, J. M. (1989): «Euskal itzulpenaren berezitasunak (Zenbait gogoeta)» in *SENEZ*, 5º urtea, Nº 1-2, Donostia.
23. MENDIGUREN, X. (1988): «Etorkizuneko itzulpen-lizentziatura: zenbait ohar kritiko» in *SENEZ*, Nº 1-2, Donostia, 199-200 or.
24. TORREALDAI, op. cit., 97-98 or.
25. Atal hori § 309 bezala agertzen da «Ueber Sprache und Worte» (Hizkuntza eta hitzez) XXV kapituluan, *Parerga und Paralipomena* obran. SCHOPENHAUER, A. (1891): *Sämmtliche Werke*, herausgegeben von Julius Frauenstädt, 2. Aufl., Bd. 6, Leipzig (Brockhaus) 1891, 601-607 or.
26. SCHULTE, R./BIGUENET, J. eds. (1992): *Theories of Translation. An Anthology of Essays from Dryden to Derrida*, The University of Chicago Press, Chicago, 9 or.
27. WANDRUSZKA, M. (1971): *Interlinguistik: Umrisse einer neuen Sprachwissenschaft*, R. Piper & Co., München. (Hortensia Viñes itzul. eta mold. (1980): *Interlingüística. Esbozo para una nueva ciencia del lenguaje*, Gredos, Madrid)
28. STRICH, F. (1946): *Goethe und Weltliteratur*, Fracke Verlag, Berne, 17-56 or.

Laburpena

Artikulu honetan euskararako itzulpengintzak mendeetan zehar ibili duen bidea aztertzen da, egondako joerak aipatuz, eta mundu osoko itzulpenaren historiaren testuinguru zabalagoarekin lotuz. Itzulpenak gaur egun Euskal Herrian duen garrantzia eta euskararen beraren bizitzan duen pisua ere erakusten dira, eta etorkizunari buruzko ideia batzuk eskaintzen.

Resumen

Este artículo analiza el desarrollo que la traducción al euskara ha conocido a lo largo de los siglos, con sus diferentes concepciones, y situándola en el contexto más general de la historia mundial de la traducción. También se muestra la importancia que la traducción posee actualmente entre nosotros, así como en el proceso de normalización de la lengua vasca, y se ofrecen algunas ideas sobre su futuro desarrollo.

Abstract

This article analyses the evolution undergone by translation into Basque in the course of the centuries, with its various understandings and viewing it as part of the general context of world translation history. A point is made about the relevance of translation nowadays among us, as well as about the process leading to a norm for the Basque language, with some ideas about its likely future developments.

Resumé

Dans le contexte global de l'histoire mondiale de la traduction, cet article analyse l'évolution de la transposition en langue basque au long des siècles et les différents critères sur lesquels ce développement s'est basé. D'autre part, l'auteur nous révèle l'importance dont la traduction bénéficie actuellement ainsi que les processus de normalisation de la langue basque. Il propose, en outre, quelques idées concernant l'évolution future de la traduction.

Traducción versus creación

4. Konparatzekoak lirateke datu horiek gero irakurlego arruntarenarekin. Urjentea ikusten dut ezagupide hori. Emaitzen izuak bakarrik botako gintuzke atzera.

Idazleok ere egoera ez-normalaren zaku horretan gaude maiz, euskararen erronka aspaldi gaintitu genuela uste dugu, *demodé* dago hizkuntza sakontzen jarraitzearen aldeko adierazpen oro. Ondo ikusiak daude «ibai» hitzari hatxea zenbat aldiz kendu eta jarri zaion bezalako egoera gróteskoei buruzko txisteak, egoera horrekin gutariko bakoitzak zerikusirik izango ez balu bezala. Ezin ukatuko dut literaturaren erreibindikapena dela euskalgintzari gerta zekiokoen gorabeherarik garrantzitsuena, baina literaturak ezin du ahaztu hizkuntza duela makulu.

Axolagabeak gara euskalgintzan emandako aurrerapusuak geureganatzerako orduan. Behin salatzen nuenez, idazleon eta itzultzaileen artean dagoen amildegiak ilustra dezake egoera. Ez dago elkarrietzeta literariorik, urte hauetan guztietan itzulpengintzak sekulako aurrerapausoa eman du eta aurrerapauso horien bizkar bizi izan da, oro har, euskal idazlea. Bego, oraingo, horretan.

Aukeran, nahiago ez

Zein da, bestalde, jokabidea gazteen artean, ikastolatik eta institutueto euskal adarretatik pasatako belaunaldi berrien artean? Lehenik eta behin, gure belaunaldiaren esku daude eta, *nemo da quod non habet*, transmititzaile kaskar batzuren jasotzaile are kaskarra goak izateko arrisku guztia izan dute eta dute.

Datu eta testigantza ugarien arabera, azkar pasatzen ómen dira euskarazko irakurketetatik gaztelaniazkoetara. Martin de Riquer-en antologiako Azorinena gertatzen zitzaiguna gertatzen al zaie programako idazleekin? Axular, Mirande edo Arestiren pare jarri gaituzte (araugile gu, halazankoa!). Gutxi garenez, inprentatik pasa den nobela itxurako guztia sartu da programan. Plantak gorde beharra dago, zerbaiten itxura eman.

Mundu handi batean apal agertu beldurrez, ghettoak ez gaitu, baina, handiago egingo, handios itxura erregalatzen badigute ere euskal literaturaren historietako portretak.

- Gutxi izaki, euskal idazle guztiak gaude programan, bizirik gaudenak batez ere, sarritan Axular, Lizarraga eta Laphitz baino eredugarriago bilakaturik.
- Gutxi izaki, euskal literatura denetarako asto zamari bihurtu da. Egokia omen da Mirande konpletibak aztertze⁵.
- Berehala deskubritzen dute irakurzaleek gaztelaniazko irakurketen oferta zabala. Beren kabuz, eta gaztelaniaz, deskubritzen dituzte Stendhal edo Chejov.

Euskarak ezin luza dezake, bere kabutatik, eskaintza zabal hori. Edozein hizkuntzatako idazlegoa, baita hizkuntzarik hedatuenetakoa izanda ere, ezin da errejistro, gai eta giro guztietara heldu. Areago gure idazlego urria. Gaien, eszenategi espazio-tenporalen, idazkeren hedadura zabalegia da hizkuntzarik hantusteenarentzat ere. Bestetik, noiz da hizkuntza baten aurpegia idiotago, hizkuntza horretan bizitzen ez denari existentzia ukatzen dionean baino?⁶ Hedadura handiko hizkuntzentzat balio duenak are eragingarriagoa behar luke izan guretzat.

Piskanaka, ordea, aldatzen ari da euskal literaturaren egoera. Etor-kizun oso gertuari begira ere, itzulpengintza bultzatzetik eta indartzetik ikusten dut nik bidea: azken bolada luzean argitaratu diren obretatik itzulpen gehiago salbatuko nuke lan orijinalak baino, gehiago gozatu dut euskara, orohar eta salbuespenak salbuespen, itzulpenetan orijinaletan baino. Abbé Prevost-en aurre-erromantizismotik Hoffmann-en siniestrotasunera, Txekhov-en lirismotik Hamsun-en sentimendu tragikora, aukera gero eta zabalagoa daukagu, euskal idazle batek sekula asmatuko ez dizkigun mundu horietara heltzeko.

5. *Ene, Jesus. Azukrea belazeetan. Carla.* Erruki! Beste hizkuntza batean irakurtzera pasatzen badira, gaitz erdi!

6. Estatu Batuetako biztanlego zabalarentzat ez dago munduan zine, nobela, musika eta arterik, beren zine, nobela, musika eta arteaz kanpo. Zibilizazioa eta barbaro-landia.

Batek baino gehiagok egiten du gaur, lanerako gogorik ez, eta Bartleby eskribatzailearen euskal aipamen testuala (*aukeran, nahia-go ez*), Borgesen erdal itzulpenekoarenaren orde. Entzun daiteke norbait artistaren gāztetako portretaz mintzatzen, artista adoleszentearen erretratua alde batera utzita.

Irakurketak egiten du bat irakurle. Irakurle onak oferta zabala behar du, zer hauta izan dezan. Eskaintza zabal hori ezingo du euskarak beretik bakarrik eman, ezingo du euskarak ikaragarri zabaldu oferta, ezingo du egun batetik bestera —orain poliziakoen moda, gero erotikoen txanda— askoz ere gehiago hobetu eman dezakeen eskaintza labor hori. Militantziaren eta betebeharrak kategorikoen gorabehera hori gutzia aitzakia polita izan ohi dugu euskal idazleok betebeharreko hutsuneen diskurtsoaz gure ezinaren edo gure alferkeriaren zuloa disimulatzen.

Hizkuntza garatuen kasuan itzulpenak egiten du zubitza bi hizkuntzen arteko zanga gainditzeko orduan. Gure kasuan, zangaren orde, amildegia daukagu:

- hizkuntza beraren arazoak: onerako eta txarrerako, murraila sekulakoa dugu euskara inguruko hizkuntzekin harremanetan jartzeko.
- hizkuntza gutxiagotu baten eragozpen guztiak eta bi hizkuntza handiren itzal luzeen arrisku, kompetentziak eta erasoak bizi ditugu.
- tradizio oso labor eta gutziz alderotu baten jabe gara.

Eskaintza zabaltzeko modu bakarria itzulpengintza da.

Badakigu, ordea, itzulpenen batzuetan salmenta zortziehunmila ale ingurukoa dela. Ez daukagu, irakurle orokorraren kasuan bezala, irakurle horren portreta tiporik: adina, ikasketak, non dago, zerk eraginda erosten du, zein da erosle-irakurle bikotearen arteko desberdintasuna, zenbatek eusten dio irakurketari bizitza akademikoari agur betiko! esan ondoren... Intuitiboki badarik ere, irakurle kuali-

fikatua dela esango nuke, itzulpena, poesia bezala, zirkuito akademikoetatik kanpo baitabil. Itzulpenen irakurlea borondatezkoa da, ez behartua.

Euskal irakaskuntzak ez dizkio, oro har, bere ateak zabaldu literatura unibertsalari. Irakaskuntza ertaineko adar euskaldunenean ere mugimendu eta idazle unibertsalek toki gehiago dute, praktikan, espainol literaturaren programan toki gehiago dute, euskal literaturarenean baino. La Fontaine edo Gracián kide eta ahaide dira literatura espainoleko programari esker. Oihenarte ez da, ordea, Boileuren familia klasizista horretako.

Gure hizkuntza bazter guztietara hedada dadin nahi dugu, nahiaren eta ezinaren arteko sokan txerpolari. Ezin gara, ordea, esparru guztietara heldu eta erantzunik ez baldin badaukat ere, ez nuke nahi galdera egin gabe utzi: ez al gara bazter guztietara heldu nahiz, inora iritsi gabe gelditzen ari? Beste modu batera esanda, kalitatez galtzen ari garena eta kantitatez irabazten ari garena parez pare jarritz gero, neurketa egin beharko genuke eta ikusi egia den denok aspalditik sospetxatzen duguna: zenbaterainoko lurjauzia nozitu du euskarak azken hogeitun urteetan?

Lurjauziari buruzko sentiberatasun faltaz gain, egunero ari gara erakusten gorria sekulakoa: ez gaituzte iada mintzen karteletan-eta ikusten ditugun astakeriek. Txistetzat hartzen ditugu. Beste batzuk leperoen txisteak edo belgiarrei buruzkoak dituzten bezala, gure hizkuntzari egiten zaizkion eguneroko eraso eta zaurien antologo bihurtu gara eta, okasioa izan orduko, hor hasten gara txiste kontatzaileen mekanika eta algara-gose berberaz disparateen errosarioa nork luzeago, nork distiranteago.

Bestalde, bada iragarki, agiri ofizial, testu eta abar luzea jatorrian euskaraz egin bailitza eskaintzen zaiguna. Hipokresia horrek eragin hondatzaile sekulakoa ditu itzulpena kaskarra denean, eta maiz izaten da kaskarra, benetako itzultzaile bat —senekoa— ez baita prestatzen gariaren orde lasto klase hori eskaintzera. Interes komertzialek eragindako portaera bat da, hobeto saltzen baita orijinala

itzulpena baino, eta gaur gure eskoletan dabilen euskal izeneko testuliburu asko eta asko ez da orijinal zelofanarekin bildutako itzulpena, sarri kaskar askoa, baino.

Itzulpenaren morrontza mekanikoa ere begien bistara daukagu. Iragakietan nabarmentzen da gehienbat⁷. Etengabeko morrontza horrek sekulako luizi sikologikoa sortarazten du irakurlegoarengan. Virgilioren esaldia ordenatzen genuen bezala, *felix qui potuit cognoscere causas rerum*, halatsu daukagu gaztelania beti platino iridiatuzko neurri eta eredu unibertsal.

Nere belaunalditik hasi eta ondorengoetara, itzultzaile mentalak gara guztiok, idazleok ere barne. Idazleok beste hizkuntzetan, gaztelaniaz edo frantsesez kasuan kasu, dauzkagu pauta, klitxe, modismo, esaldi eta erreferentzien trepeta oso luze eta oso zabal bat eta itzultzen ari gara etengabe, itzultzaileek ez daukaten abantaila usteko nabarmen batekin: gure itzulpen mental horietan eragozpen batekin topo egin orduko, saihets genezake eragozpena antzinako ipuinek dioten eran: buelta eman *dame la vuelta* dioen bideko harri koskorrari eta iraulita gero, *orain bai ondo!* idazten dugu, eta irakurleak ere horixe irakurtzen du, harriaren azpiko alde bistaratu berrian. Aitzitik, ordea, itzultzaileak: itzulpenaren fideltasun beharrak ezin ditu arazo ez linguistikoak, ez tematikoak saihestu.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi erakundeen jokabide irresponsablea: liburugintza eta telebista sail baten esku, ereduak eta perfilak beste batenean, hezkuntza hirugarren baten esanera, administrazioko euskara laugarren baten kargu... Estamendu desberdin horiek ez

7. Letra handiz ikusten badugu BECAS, denok ulertu dugu mezua. BEKEI, ordea, ez da deus euskaraz. *Ayuda a* zioen kartelak *becas* horren gainean. *Laguntza* besteak *bekei* horren gainean. Euskal itzulpena ez da, noski, kaskarra, baina itzultzaileak ez du jakin zer erabilkera grafikoa izango zuen bere lanak.

Unibertsiteak urte honetan sarri iragari du kirol eskaintzei buruzko zerrenda luzea. Gaztelaniaz ordenu alfabetikoan zetorrena, euskaraz gaztelaniaren esanera zetorren: *Vela* azkenetan zetorren bezala, gure bela ere, b eta guzti, azkenetan zetorren..

daukate koordinaziorik eta, sarri, politika erabat kontrajarriak daramatzate. Euskarari buruzko ikuspegi politiko guztiz desberdinak ez direnean, liskar pertsonalak dira. Gure eskizofreniak, nobela hartako itsasoak bezala, ez dauka esperantzarik.

Itzulpen onaren bentajak

Itzulpegintzaren defentsa ezin daiteke, ordea, euskararen garapenera bakarrik hedatu. Ulisesek beldurra zion etxera bueltako ibilgoa ahanzteari. Aurrera pausuak eman ahala, oroimena gordetzeko moduak eraiki behar zituen. Esperientzia finkatzeko manera da. Itzulpena ere ibilgoaren irakurketa modu bat da, ahanzduaren aurkako arma, gizon-emakumeek hizkuntza desberdinetan egin bidaietako esperientzia geurean ere finkatzeko manera bat. Itzulpena ez da atzera begirada bat, errestaurazioa baino. Irakurleok, jatorrizko hizkuntzarik ez dakigunean, itzultzailearen galbahea onartzen dugu, itzultzaileak egindako irakurketa, gurea baino askoz ere sakonagoa eta astiroagoa, onartzen dugu. Itzultzailearen eskuetan geratzen gara, gida gaitzan.

Itzulpena talai bat da, handik literatura unibertsala geure begiekin ezagutu dezagun. Ez da bertatik bertara ikusten den paisaia bezain konkretu eta zehatza. Obra jakin bat gero eta urrutiago denboran eta espazioan, orduan eta arreta gehiago jarri behar du itzultzaileak, urrutiko denboren eta tokien oihartzun arrotzekin familiariza dadin. Sarri lanbroa dago talaian, itzultzaileak ere lanbroa baitzeukan begietan. Bestetzutan itzultzailearen itzulgaiarekiko maitasun gehiegiaren sargori-galgarak irudikeria lausotuak sortzen ditu, sortzen ditu izotzaren dirdaiak itzultzailearen lan hotz, errutinazkoak ere⁸.

Eragozpenok ezin gaituzte, baina, bidetik apartatu. Tamalgarria da esan beharra itzulpena dugula bide bakarra zubi egitekoa beste

8. Euskal literatura heltzen ez den giro, anbito, horietara heltzeko itzulpena... Itzulpen teknikoak. Prioritateak markatu behar. Holanda, testu teknikoak ingelesez edo alemaneraz.

hizkuntzen eta gurearen artean, lehenaren eta etorkizunaren artean, kulturaren eta gure arteko bakoitzaren artean. Itzulpena dugula modua geure begiekin ikustekoa beste giro, pertsonaia eta paisaiak, gure ahotsa ahots orokorrarekin bat egitekoa, oihartzun handia geure be-larriekin entzun eta bertan gure ahotsak parte hartzekoa. Jim Hawkins-ekin altxorraren bila abiatu, haren bidaia inizatiko paregabea gure bidaia inizatikoa ere, etxetik egina eta apalagoa, bilakatzera-ino; nork bere ahotsaren oihartzunak ahots orokorrarekin bat egin. Gauza gehiago dago beti zeruan eta lurrian, gure ikuskera zabalenak ere ikus ezin dezakeena. Orain formulatu al dut azken pentsamendu hori ala Shakespeareri zor diot, Hamlet-i esker neureganatu nuelako bere garaian? Ohartzen naizenez, gaztelaniaz borobildu dut esaldia eta bapateko itzulpenaz baliatu naiz idazterakoan. Pista egokia luke detektibe batek iturria eta jokabidea ikertzeko, eragina (mobila) eta delitua argitzeko.

Ez da, askok uste duen bezala, tradizio bat beste baten mende jartzea. Zaldi hanka zuriak euskaldunak bezain albaniarrak dira, eta badaude Apokalipsian ere. Euskal Herrian bezala Lituanian eta baita antzinako Egipton ere, ohitura izan da erleei baserriko jaunaren heriotzaren berri ematekoa. Gure orijinaltasuna ez da gaiena eta usadioena, gai eta usadio hain orokorreori oraindik ere, XXI. mendearen ateetan, eutsi izanarena baino⁹.

Ez dago, ezta ere, zertan konfrontatu beharrik euskal orijinalak —freskoagoak omen, euskal kutsua mantentzen dutenak— eta itzulpenak. Irene Aldasorok Joyceren *Artistaren gaztetako portreta* itzul-

9. Eredu literarioa ere itzulpenetatik osatu dugu neurri handi batean: Duvoisin, Lapitz, Axular bera... Zenbat dago horretan guztian itzulpenetik? Esanahi berri bat eskaini nahi duen hitza edo ikuspegi berri bat luzatu nahi ligukeen esamoldea ukatzea sutraien edo auskalo zeren izenean, atea ixtea da etorkizunari eta hizkuntza makurtzea hesi jakin batzuren bahituran, ahaztuz hizkuntzari, itsasoari bezala, ezin zaizkiola atea jarri.

Etsairik handiena norbera da bere buruarena. Hamar etsaiek batera ere ezin egin dezakete norberak bere buruaren kontra egin dezakeen hainbat (Bashebis Singer).

peneko abesti bat itzultzen duenean (*Dilin-dalan! Gazteluko ezkila! Ama nerea, adio! Ehortz nazazue hilerri zaharrean, anaiá nagusia-ren aldean, hilkutxa beltzean, sei aingeru atzean...*) euskal tradizio konkretu baten oihartzunak ere biltzen ditu (*Ni hiltzen nizanean ez ehortz elizan, ez ehortz elizan, ehortziren nuzue, soto baten zolan, zangoz bortharat eta ahoz dutxulura...*). Zer moduz? galderari *ondo baino hobeto* erantzuten dio Irene Aldasorenen itzulpenak eta galde-*ra berari como una locomotora* Damaso Alonsorenak. Zer ba? galde-*rari baratzean zerba* erantzuten dio Aldasorenenak, *¿Qué te trae por aquí?* galderari *las piernas le traen* Alonsorenak.

Tradizio jakin bat tradizio jakin batetik. Portreta asko gordetzen ditu Joyceren gaztetako portretak bere baitan. Klasikoa baita, esan behar duena sekula agortzen ez zaion horietakoa. Klasikoa baita beti bera izaki, beti berria zaiguna. Peneloperen oihala bailitzan jokutzen du obra klasiko batek: ehundu eta ehundutakoa mistifikatu, sekula ez dakizu aurrera pausoan ala atzera begira zauden: aurrera jotzeko ausardia eta atzera begiratzeko nostalgia, biak batera eskaintzen ditu, definizioz, obra klasiko batek.

Quijoteren liburutegian garbiketa egiten ari direla, apaizak bizar-*ginari esaten dionez, «berezko kemena» —«natural valor»—* ahul-*tzen zaie liburuei hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan, eta orixe ber-bera egingo dute bertso-liburuak izkuntza batetik bestera itzuli naiko dituzten guziek; ez bait-dira beñ-ere jatorriz duten goiko mailla artaraiño igoko, naiz-ta arreta osoa jarri eta taju-tajuz ari.* Berezko kemen hori galtzen du Shakespearek gaztelaniaz edo frantsesez ere, Cervantesek euskaraz edo italieraz. Jatorrizko obrak bere oihartzun-*sistema propioa duen bezala, itzulpenak ere ezartzen du bere durdu-
ria.*

Irakurle adinean sartuxeok bigarren ekimen bat behar dugu, maiz, euskal itzulpenetara jotzeko, berriro irakurritz *Bartleby* edo Hoffmann-*en Ipuin fantastikoak.* Calvinok dioen bezala, heldu aroan denbora jakin bat hartu behar genuke gure gaztaroen formatu gintuzten irakur-*ketei —«formatu» hori «forma eman» gisa ulertu behar da—* aldiari sarri ekinez, gure formazioaren garapenez ere pentsatzeko.

- 1.- Liburu on bat ez da sekula liburu berdin-berdina idatzi zenean eta gaur: historiak eta abar luzeak adina, izan dituen irakurketa ugariak ere aberastu egin dute, oihartzunez bete.
- 2.- Ez da liburu berdina gaztetan irakurri nuen *Robinson Krusoe* eta uda honetan berrirakurri dudana: besteak beste, irakurlea ere ez baita, bera bai baina ez berdina, gaztetan eta adineko denean, ez dira berdinak interesak, ez da berdina jarrera... Zer, nork, noiz eta zein talaitatik irakurtzen dugun jakin behar dugu.
- 3.- Ez da, ezta ere, liburu on hori liburu bera jatorrizko hizkuntzan eta itzulpenean, hizkuntza bereko itzulpen batean eta bestean, bi hizkuntza desberdinetako itzulpenetan...¹⁰

Gaztelaniaz eta euskaraz irakurria dut Stevenson-en *Altxor uhar-tea*. Euskaraz bakarrik Cocteau-ren *Ume terribleak*. Desberdinak dira euskarazko bi irakurketek sortarazten dituzten efektuak:

- Stevenson-enarekin kontrasteka ari naiz:
 - Gaztelaniazko bertsioarekin.
 - Gaztetako irakurketaren oihartzunekin.
- Cocteau-renarekin, aldiz, efektua zuzen-zuzena izan zen, liburutik nire kabutara barreiatu zena.

Uste dudanez, arrazoi franko eman ditut, zeharka bidetik batzuk, zuzen asko bestetzuk, idazle baten itzulpenekiko interesaz. Apuntatu nahi nituzke, labur bederen, beste pare bat:

- Itzultzaileak, gorago ere esan dugun bezala, adarretatik heldu behar dio zezenari, ezin du eragozpenik saihestu. Topikeria eta makuluetatik hasi, lexiko eta sintaxi gorabeheretatik

10. Zalantzak nituen puntu hau integratu ala ez, kritika bat baino gehiago jaso baintuen bere garaian "disziplina espartarnoaz" esan nituenengatik. Mantentzea erabaki dut, puntuak daukan moral kutsuaz oso konzientea baldin banaiz ere.

pasa eta auzi erritmikoetaraino, makina bat arazo konpondu behar ditu itzultzaileak. Itzultzaile-idazle, lan bikoitza egin izan dugu idazleok, sarri betazal gehiago errez topikeriako gorabeheretan, nobela baten garapenaren arazoak konpontzen baino.

- Ohartzen naizenez, eta horretarako aski da azken hiruzpalau urteetako zenbait liburu irakurtzea, ez dago, idazle on aldetik, itzulpenak irakurtzeko ohiturarik eta, hala, itzulpenetan konponduta eta ondo konponduta ikusten diren arazo topikoak, lexikoak, sintaktikoak, herren ikusten dira sorkuntza lanetan.
- Egia da, halamoduzko itzultzaile ere bagaren aldetik, abilezia sekulakoa garatu dugula arazoak saihesteko orduan. Tranpaz betea dago azken urteotako prosa. Baina gero eta itzulpen on gehiago, orduan eta libreago jokatzeko aukera izango dugu:
 - Ez dugu tranpeatzeko halako premiarik izango.
 - Ez dugu aitzakiarik izango, denbora eta neke guztiak sorkuntzari eskaintzeko orduan.
- Disziplina falta, ordea. Gauzak egin gabe daudenean, egin gabe daudelako, eta erabakiak hartzen direnean legitimitatea eztabaidatzen dugulako: kontua da beti daukagula aitzakia-
ren bat. Hara non hitza eta hitzaren jatorria —*achaque, denuncia hecha para beneficiarse del denunciado*— bat dato-
zen gure portaera sarriarekin¹¹.
- Usua da idazle baten jokabidea, obra bat idazten ari denean, bibliografia oso zabala erabiltzekoa:
 - Informazio bila eta kontsulta modura.
 - Erbia nondik aterako.

11 Nire belaunaldiak gaztelaniaz ezagututako autore asko eta asko, itzulpenen itzulpenetan irakurri ditu. Halatsu autore errusiar gehienak, ekialdekoak, islamia-
rrak...

- Idarokizunen bila.
 - Denbora agor eta antzuen angustiatik libratzeko.
 - Batzutan tonu, bestetan gai, gaur giro, bihar denbora bereko liburuek lagun diezaioten obrari.
 - Aitzitik baita ere: obraren tonu, gai, denbora eta giro oso desberdineko liburuek, urrutiramenduaren efektuz, lagun diezaioten obrari.
- Bibliografia hori guztia, ordea, euskara ez beste hizkuntzetan egon izan da, oharkabean eraginez gaztelania-euskara harreman estu-estua sorkuntza garaian ere.

Amaitzeko

Esaten aritu naizen guztiak liburu klasikoak, esan behar dutena sekula agortzen ez zaien liburuak zituen oinarri eta helburu¹². Beldur naiz adierazkaitz bezain luze eta, gainera, alferretan saiatu izana. Liburuak gero eta gutxiago irauten du liburu dendetan, kontsumoaren legeak agintzen baitu liburuek ere arrautzek bezalakoak behar dutela

12. Poesia itzulpenaren arriskua. Aipa dezadan Ungaretti, Gil Berak haren *Poza* itzuli ondoren, Ungarettiren aipu bat erabili izan delako gero arinkeria estaltzeko kapa modura: "Poesia itzulezina da. Itzulpena da, hain juxtu ere, indibidual eta imitagitza diren gauza guztien erabateko proba nagusia. Erritmoa ez da itzulgarria (...), silaben nolakotasuna ez da itzulgarria (...), edukina ez da itzulgarria (...) forma eta estiloa ere ez dira itzulgarriak (...) Zergatik itzultzen da, orduan? Zergatik egin dut neronek ere? Ximpleki poesia obra orijinalak egiteagatik". Ungarettiren aipu luze hori ez da, ordea, bula bat itzulpena egin ordez errekreazio libre eta, batzutan, orijinalaren guztiz kontrakoak egiteko. Ungarettik ezina aipatu ondoren, ezin horren aurka lehiatuko da, inork gutxi bezala kritikaren begi zorrotza eta sorkuntza biak batera landuz. Literatura italiarlean oso ezagunak dira Ungarettik burututako Góngora, Shakespeare edo Blakeren poemen itzulpen landuak. Poesia obra orijinalak dira, italieraz Shakespearerekin izan zitekeen fidelena delako Ungaretti eta ez bere neurriko kapa bat osatu duelako Shakespearrek idarokitzen zizkionarekin.

izan: egunekoak. Kontsumitu eta botatzekoak. Liburudendetan ez da iada aspaldiko libururik aurkitzen.

Gaurko industria kulturalak bapateko atsegina, kleenex papera-
ren fereka eskaintzen digute. Testu singleak, aise liseritzeko mo-
dukoak, *fast food*, euskara erraza.

Oraina da modaren ardatz bakar-bakarra: iragana hil zen, etorki-
zuna ez da jaio. Oraina, bestalde, etengabe bihurtzen da iragan etor-
kizunaren haritik tira eginez, eta, ezinbestean, lehenxeago aktualak
ziren produktuak baztertu, baliogabetzat joz, menostuz. Oraina da
berritasunaren kultogai bakarra eta liturgia horretarako balio duten
produktuek ezaugarri jakin batzuk behar dituzte:

– *Polisemia urria*, ulermena bapatekoa eta zuzena izan dadin.
Iraganera begiratzeak, klasikoen erreibindikapenak, berrirakurketa
bezalako kontzeptuek ez dute deus balio: balore iraunkorren eta ba-
lore hilkorren arteko lehia horretan, industria kulturalak —baita
geurek ere beren neurrian— ez dute epe luzeko apusturik egiten.

– *Publiko ahalik zabalena* behar du produktu mediatikoak, beze-
roak behar baititu. Industria kulturalak laster asmatuko du metodoa,
espioiek beren mezuekin ohi bezala, liburu bat irakurri ahala desegi-
tekoa.

– *Liparra, instantea, helburu*: dibertsioak ez du denborarik jaten,
unean uneko plazerraren zentzua dauka dibertsioak. Formazioak,
berriz, denbora behar du, garapena eskatzen baitu.

– *Arrastorik uzten ez duena*: arrastoak lagako balitu kultura ho-
rrek, sortuko balu hondorik eta testura bueltatu beharrik, saihestu
duen aintzinako forma kulturalen bidera eramango gintuzke. Arras-
torik lagatzen ez duena behar du izan.

– *Bizkortasuna*: irudiek erritmo berri bat inposatu diote testu ida-
tziari, eta irudien erritmoak berak irudien bidez emandako kontaki-
zuna ere irentsi dute. Video-clipetan daukagu adibidea: irudiek ez
dute elkarren arteko lokarri narratzailerik. Musika zen, antza, lotura.

Baina gero eta video-clip gehiago dago gaur lotura hori ere ez daukana. Irudia irudiaren atzetik, ez dago segizio tenporal hori beste loturarik.

– *Des-pentsamendua*: Kunderak formulatu zuen. Ezin da pentsamendu ezarekin nahasi. Pentsamendu ezak inexistentzia adierazten du. Des-pentsamenduak, aldiz, errealitate jakin eta oso konkretu bat. Pentsamenduak derrigorrezkoa du denboraren jariora, ez-pentsamendua instantea da, bapatekotasuna: topikoak, estereotipoak, produktu mediatikoak ez-pentsamenduz beterik daude.

Pentsamendu kultural klasikoak iraganeko eruedetan jartzen zituen begiak, immortalizatzeko —etorkizuna lortzeko— asmoz. Petrarkak zioenez, loria ez da heriotzaren ondoren baizik hasten. Baina, horretarako, iragana bere garaira tajuz eta zuzen erakartzen zuenak bakarrik espero zezakeen heriotz ondoko loria.

Gaur oso bestela da. Zer loria handiago *carpe diem* ahal den luzeena bizitzea baino? Zer axola heriotzaren ondorengo loriak eta iraganeko iturrietan egarrria asetzeak, momentuko atseginarenean etsai porrokatu direnean bata zein bestea? Calvinok hori guztia gogoan formulatu zituen bere sei proposamenak datorren mileniorako.

Berriaren lilura, moderno izan beharraren antsia. Gombrowicz-en *Ferdydurke*-ko ama Lejeune pozarren dago moderno izaten ikasi zuenetik: lehen izkutuan joaten zen komunera eta orain inolako lotsarik gabe.

Hortik ihes egin nahi-eta, *pro-domo* ere, euskal baratzerara begira adina geure bihotzetara, ez ditugu gauzak askoz ere garbiago. Juan Garziak idazten zuen bezala, «batzutan, gauza gara, baina izpiritua falta. Bestetzutan, berriz, bagara gai, baina ez dugu gogobetekorik gauzatzen. Orotara, hala ere, urri eta eskas gabilta; izan hala garen ez dakit, baina. Arrazoi eta aitzakien gurpil sorginduan jiraka, ez da ikusten eguna gure tiobibotxo honetatik salto egin eta mundura helduko garena. Feriako beste barraketara, behintzat, non, adibidez,

kolore askotako baleak erakusten diren, eta giza-labezomorroak, eta hiri ezinezkoak».

Gizon-emakumeona ez da, Joseph Roth-en bidetik, amaigabeko ihesa baino, ihes egin beharra, jakin badakigun arren ez dagoela nora ihes eginik. Munduak gero eta zentzu mugatuagoa izango du, eta obra literarioek ere, giza izpirituak sortu dituen monumentu sekulakoenak ere barne, zentzua galduko dute, ulertzen ez dugun bitartean mundua ez dela, ez estu-estu ez zabal-zabala, zentzu bakar, uniboko eta norabide bakar bateko. Kunderaren ustetan, horixe zor diogu Cervantesi: ezin da mundua ulertu ez baldin bada anbiguitatearen ikuspegitik. Ez dago egia absoluto bakar bat, ehundaka egia erlatibo baino, elkarren etsai sarri, kontraesanguratsuak, paradoxiakoak...

Txarrenera ere, etorkizunaz kezketan bageunde, Sokratesen kontsolamendua gelditzen zaigu. Zikuta prestatzen zioten bitartean, txirula-pieza bat ikasten hasi zen. Galdetu zioten:

– Berehala hilko haugu. Zertarako balioko dik pieza ikasteak?

Eta Sokratesek erantzun:

– Ezagutzeko.

Gratuitatea baita benetako arteak enplegatzen duen txanpon bakarra.

Laburpena

Euskal literaturan izen eta itzala duen idazle batek, Anjel Lertxundik, gogoeta kilikagarri batzuk eskaintzen ditu, euskal idazle, itzultzaile zein irakurle soilarentzat ere iradokizunez beteak: nolako harremana duen bere belaunaldiak itzulpenarekin orohar, eta, bereziki, euskararako itzulpenarekin, nolako harrera, erabilera eta garrantzia duen itzulpenak gure artean, bai eta nolako bidea egiten ari den azken urteotan, sormenezko euskal literaturaren aurrean, guzti-guztia idazle/irakurle baten ikuspegi-tik.

Resumen

Anjel Lertxundi, autor conocido y reconocido en las letras vascas, realiza unas reflexiones muy estimulantes y sugerentes para los escritores, traductores y simples lectores: qué vínculos tiene su generación con la traducción en general y, en particular, con la traducción en euskara, qué aceptación, uso e importancia tiene ésta, así como qué grado de desarrollo ha alcanzado en estos últimos años frente a la literatura vasca de creación, todo ello desde el punto de vista de un acreditado escritor/lector.

Abstract

Anjel Lertxundi, a well known and reputable author in the field of Basque letters, reflects on issues which writers, translators and even readers will find both stimulating and thought-provoking: such as how his generation is linked with translation in general first, and then more particularly with translation in Basque; its popularity, application and relevance; and, finally, to what extent this field has progressed in the last few years when compared to Basque creative literature. All these topics are dealt with from the point of view of an accredited writer/reader.

Resumé

Anjel Lertxundi, auteur connu et reconnu des lettres basques, nous propose quelques réflexions très stimulantes et suggestives, tout spécialement adressées aux écrivains, traducteurs et simples lecteurs: comment sa génération considère-t-elle la traduction en général et, en particulier, la traduction en langue basque, de quelle façon la traduction est-elle acceptée et utilisée, quelle importance a-t-elle et à quel point s'est-elle développée au long de ces dernières années face aux créations de la littérature basque... et ceci, du point de vue d'un illustre écrivain/lecteur.

Autor y Traductor

Miguel Sáenz

1. El autor como traductor y el traductor como autor

Fue probablemente Novalis el primero que dijo, en una carta a Schlegel, que, «en definitiva, toda literatura es traducción»¹. Otros lo han repetido luego, con mayor o menor convicción o fortuna², pero, aunque la idea pueda ser iluminadora para una teoría general de la literatura, resulta bastante inútil cuando se trata de meditar seriamente sobre la traducción. Si toda literatura es traducción, ¿qué es la traducción en sentido estricto? Y si todo autor es, en definitiva, un traductor, ¿qué es un verdadero traductor?

Para complicar más las cosas, sabido es que, al menos desde el punto de vista jurídico, un traductor literario es también autor, el autor de su traducción. Así lo declara la —por muchos conceptos acertada, aunque tímida— Ley de la propiedad intelectual española, núm. 22/1987, de 11 de noviembre, siguiendo el precedente establecido hace muchos años por la Convención de Berna de 1886 y por otros convenios internacionales posteriores.

Sin embargo, analizar el concepto de autoría y, sobre todo, de originalidad literaria, exigiría mucho tiempo y esfuerzo y, a efectos del tema central de esta exposición, que es, básicamente, el de las complejas relaciones entre autores y traductores (entendidos ambos

en sentido restringido) no parece necesario. Sólo interesa recordar que esa idea reverencial de la autoría, de la originalidad, es relativamente reciente y no se remonta mucho más allá de ese siglo XIX cuyos coletazos románticos sentimos todavía. Con anterioridad a esa fecha, los autores se enorgullecían de sus traducciones tanto como de sus obras originales y, en realidad, no parecían distinguir muy bien entre unas y otras, salvo cuando se trataba de traducciones de esas «reinas de las lenguas» de que hablaba Cervantes: el latín y el griego.

Por poner un ejemplo tópico, algunos parlamentos del *Julio César* o del *Antonio y Cleopatra* de Shakespeare no son más que fragmentos en verso blanco de la traducción que hizo Thomas North de la traducción francesa de Jacques Amyot de las *Vidas Paralelas* de Plutarco... Y los ejemplos podrían multiplicarse, ya que el pillaje entre autores, a través de las traducciones, llega hasta nuestros mismos días. El caso más claro tal vez sea el de Bertolt Brecht, capaz de entrar a saco, no sólo en Shakespeare (el *Coriolano*, con lo que se produce una especie de cuarta reelaboración) o en Marlowe (el *Eduardo II*), sino incluso en autores claramente inferiores a él mismo, como John Gay (véase *La Ópera de cuatro cuartos*).

La consecuencia de esa sobrevaloración de la originalidad ha sido la aparición de una distinción tajante entre la literatura original y la literatura traducida. Y esa separación, como dice Procházka, ha tenido otras consecuencias nefastas: «por un lado, el descuido de la literatura traducida y del arte de la traducción dentro la teoría de la literatura y, por otra, una notable disminución del nivel de las traducciones, especialmente en la prosa»³.

En cualquier caso, debería bastar con aceptar ahora a su valor facial dos premisas, sin duda discutibles pero de cierto peso. La primera es que la traducción no es sólo, como decía Octavio Paz, «una función especializada de la literatura»⁴, sino un auténtico *género* literario que, en cierto modo, recorre verticalmente todos los demás. Algo que quizá apuntaba Ortega en su famoso ensayo *Miseria y esplendor de la traducción*, mil veces citado, desmenuzado y hasta mal traducido, al escribir: «Yo diría: la traducción ni siquiera pertenece

al mismo género literario que lo traducido»⁵. Sea como fuere, no hay duda de que la traducción *es* literatura (realmente ¿qué otra cosa podría ser?).

En cuanto a la segunda tesis aquí mantenida, quizá sea todavía más indiscutible: las obras traducidas, en contra de lo que pudiera parecer, pertenecen a la literatura del país de la lengua a la que han sido traducidas. Es más: en ocasiones han sido el arranque mismo, la fundación original de la literatura de ese país. El caso de la literatura latina y la traducción de la *Odisea* por Livio Andrónico en el siglo III antes de Cristo es bien conocido, pero no es, ni mucho menos, el único⁶. Por lo tanto, si se admite esa premisa, la literatura vasca, por ejemplo, se compondría de todas las obras originalmente escritas en euskara, pero también de todas las obras traducidas alguna vez al euskara.

Y esto es muy importante porque esa incorporación a la literatura de un país de las obras escritas originalmente en otros idiomas se traduce en un enorme enriquecimiento de la lengua. Al hacer hablar —al hacer escribir— en un idioma determinado a cientos y miles de personas que nunca hubieran podido hacerlo, con mentalidades muy distintas y pertenecientes a mundos y culturas muy diversos, la lengua tiene que realizar ejercicios casi acrobáticos, con los que se flexibiliza, desarrolla y fortalece.

Siempre que se trate, naturalmente, de buenas traducciones.

2. El autor frente al traductor

Descendiendo a un nivel más prosaico (aunque lo que se diga valdrá también para la poesía) y partiendo del supuesto más normal, es decir, el de que autor y traductor sean dos personas distintas, hay que decir que las relaciones entre ambos son un campo relativamente inexplorado que encierra auténticos filones para el psicólogo.

Para algunos, el traductor es un simple «recodificador» pasivo, que se somete al autor, aferrándose a un concepto metafísico de la

obra original, a la que reconoce una posición sagrada. El traductor, personaje casi siempre apocado (según Ortega)⁷ y por lo general más bien melancólico y dubitativo (según Monterroso)⁸, asume así conscientemente su complejo de inferioridad y siente que la obra del autor está protegida por el más fuerte de los tabúes, el del incesto.

Para otros, el traductor es precisamente una persona que, de forma deliberada o no, rechaza esa prohibición y se afirma agresivamente, transformando, mediante un acto creador, un texto pasivo e inerme.

La verdad, probablemente, está en el medio, porque todo traductor se mueve siempre entre dos polos: la modestia propia de su posición de servidor, de sirviente, y el orgullo que le produce la conciencia instintiva de su condición de creador. Mantener un equilibrio, siempre inestable, entre esos dos extremos es, posiblemente, el más difícil desafío moral que se plantea al traductor. Como dijo Ezra Pound alguna vez, hay muchos más traductores que fracasan por falta de carácter que por falta de inteligencia.

En ocasiones (quizá con cierto humor) se ha llevado aún más lejos la aplicación de esa psicología elemental a las relaciones entre traductor y autor, o entre traductor y obra traducida, sugiriendo que todavía existe, como en el caso de los primeros traductores de la Biblia, una situación monacal. El traductor, como un monje benedictino, estaría ligado por votos no expresamente formulados de castidad, pobreza y obediencia.

Castidad, porque se le prohíbe mantener con el texto-madre unas relaciones que no sean puramente platónicas, formales. Además, el traductor debe practicar una especie de celibato intelectual y tropieza con resistencias siempre que pretende afirmarse como escritor original. Pobreza, no tanto por lo menguado de su salario sino por su voluntaria anulación frente al autor: sólo muy recientemente, y no siempre, ha conseguido que su nombre aparezca siquiera en la obra traducida. Y obediencia, como corresponde a la típica relación amo-esclavo, con todos sus conocidos componentes sadomasoquistas⁹.

De todos modos, y aún prescindiendo de las exageraciones que puede haber en las lucubraciones de los que Nabokov llamaría «la delegación vienesa», es decir, los psicoanalistas empedernidos, es curioso señalar que las relaciones entre autor y traductor, como relaciones típicas «de pareja» han llamado la atención de grandes escritores/traductores. Guimarães Rosa hablaba de «convivência» y Valéry Larbaud decía que la traducción: «*c' est tout un roman d' amour*»¹⁰. De ahí que la falsedad, la traición o la infidelidad sean los peores pecados del traductor...

3. Parejas estables y menos estables

La actitud del autor hacia sus traductores puede ir desde el desprecio más olímpico hasta la amistad más estrecha.

Ejemplo de lo primero podría ser el difunto Thomas Bernhard, quien decía que todo libro traducido es «como un cadáver destrozado por un coche hasta resultar irreconocible»¹¹. Para él, un libro traducido nada tenía que ver con el original, y precisamente por eso reconocía sin vacilar que su autoría pertenecía al traductor. Sin embargo, todo traductor con tendencia a exagerar la importancia de su oficio debería releer de vez en cuando un expresivo fragmento bernhardiano:

«Los traductores desfiguran los originales
Lo traducido sólo llega al mercado siempre como deformación
Son el diletantismo
y la suciedad del traductor
los que hacen una traducción tan repulsiva
Lo traducido es siempre asqueroso...»¹²

No obstante, los casos opuestos al de Thomas Bernhard son, por suerte, mucho más numerosos: Milan Kundera, por ejemplo, es un escritor que vigila, cuida y se ocupa de sus traducciones, porque sabe que, en definitiva, son lo único que en la mayor parte del mundo se sabe de él. En cuanto a Günter Grass, no sólo dedica su tiempo a leer, analizar y releer con sus traductores cada uno de sus nuevos libros,

sino que recibe a éstos en su propia casa, cocina para ellos, se emborracha con ellos y una vez les dedicó un cumplido realmente insuperable: cuando, hastiado o fatigado, pensó en la posibilidad de no volver a escribir nunca más, se dio cuenta de que, entonces, no tendría oportunidad de reunirse con sus traductores... y decidió seguir escribiendo.

Los casos de una buena amistad entre autor y traductor son muchos, pero a veces se produce una auténtica simbiosis. Uno de los ejemplos más notables es el de Guimarães Rosa, que, al menos en las últimas ediciones brasileñas de su *Grande Sertão: Veredas*, exigía que se publicara también, en facsímil, la primera página de la espléndida versión italiana de Edoardo Bizzarri. Guimarães Rosa escribió una vez al profesor Bizzarri que los dos juntos eran fortísimos, invencibles: «*com Você, não tenho medo de nada!*»¹³. Y hay otros casos notables: así, Henry Roth, ese clásico viviente autor de *Llámalo sueño*, lleva años y años escribiendo la que probablemente será la obra de su vida: *A merced de una corriente salvaje*. Sin embargo, aunque, por diversas razones, no quiere que se publique en inglés hasta después de su muerte, ha accedido a dar una primicia a su amigo y traductor Mario Materassi, de la Universidad de Florencia, y la consecuencia es que hoy pueden leerse unas cien páginas de esa obra en italiano (y por carambola, en español también¹⁴) que nadie puede leer en su versión original.

En cualquier caso, la relación entre autor traducido y traductor es absolutamente necesaria y resulta sorprendente que, con enorme frecuencia, no se produzca. Nadie como el autor puede explicar al traductor sus intenciones (Borges, Pound, recomendaban a sus traductores que tradujeran, no lo que escribieron sino lo que hubieran querido escribir) y nadie como él puede descifrarle el texto, poner al descubierto las citas o influencias ocultas, subrayar lo que le interesa subrayar... Günter Grass es, en ese sentido, modélico. Repasa página a página con sus traductores cada libro, les lee los poemas intercalados, los diálogos en dialecto o los pasajes de especial sonoridad, y el traductor acaba teniendo una conciencia clara de lo que es importan-

te para Grass y de cuáles son los problemas que, por su parte, tendrá que resolver. Los resultados de ese esfuerzo —unas traducciones más que estimables que han obtenido toda una serie de premios nacionales en distintos países— demuestran que la receta es buena.

Otros autores, como Peter Handke, mantienen unas relaciones más complicadas con sus traductores, que pueden ir desde el insulto hasta el idilio. Peter Handke convirtió a su traductor Eustaquio Barjau en actor de su película *Die Abwesenheit* (La ausencia) y ha ido más lejos aún con su traductor al francés, Georges-Arthur Goldschmidt, al traducir una novela suya al alemán¹⁵. Según el propio Goldschmidt, su felicidad más alta consiste en saber que Handke prefiere leer sus propios libros en traducción francesa¹⁶. El caso de una pareja que se traduce mutuamente no es nada corriente, pero Javier Tomeo propuso una vez a su traductora alemana, Elke Wehr, algo parecido, un plan para cuando se le acabara la inspiración. Él traduciría otra vez al español la última obra suya traducida al alemán por ella; como consecuencia de variaciones inevitables en toda traducción y retraducción, resultaría una obra totalmente distinta, que ella volvería a traducir al alemán y que él, a su vez, traduciría al español, y así sucesivamente.

Es indudable que todo traductor responsable debe vencer su natural reserva y tratar de ponerse en contacto con el autor al que traduce... a condición, naturalmente, de que esté vivo. No obstante, la historia de la literatura está llena también de casos de escritores absorbentes que hacían o hacen la vida imposible a sus traductores, sobre todo cuando conocen, pero no suficientemente, la lengua del traductor. La correspondencia de Giovanni Verga con el traductor de *I Malavoglia* al francés (el suizo Edouard Rod) resulta en ese sentido descorazonadora: en el fondo, Verga, convencido de que su siciliano cerrado era intraducible, quería que se le tradujera pero no demasiado, es decir, lo menos posible¹⁷. Por su parte, Gabriele D'Annunzio, magníficamente traducido al francés por su amigo Georges Hérélles, un profesor de filosofía, mantuvo con él peleas a brazo partido por una simple palabra o un giro estilístico. Para D'Annunzio, una tra-

ducción era sólo «una forma más o menos ingeniosa de poner al lector en *estado de adivinación*», y el deber de su traductor era «*dannunziaggiare*» el francés¹⁸.

Sin embargo, no hay que remontarse tanto en el tiempo para encontrar ejemplos de escritores empeñados en enmendarles la plana a sus traductores: según es fama, Robert Coover con sus cartas llenas de cambios y correcciones, llegó a producir tal depresión nerviosa al traductor al francés de su *Gerald's Party*¹⁹, que éste tuvo que ser ingresado en una clínica.

4. Cuando el autor traduce o el traductor escribe

No son raros los casos de escritores más o menos profesionales que, con carácter regular o no, abordan la traducción, y en otros tiempos u otras latitudes (como en los antes llamados países del Este), ello era algo casi habitual.

Un escritor puede abordar la traducción por distintos motivos, de los que el más triste es el de ganar dinero. Así, por ejemplo, Arno Schmidt (ese gigante alemán cuya verdadera estatura está aún por determinar) se pasó la vida traduciendo no sólo a autores con los que tenía una indudable afinidad, como Joyce, Poe o Faulkner, sino también a Fenimore Cooper, Wilkie Collins o Bulwer-Lytton, y a otros de categoría muy inferior. En España, los escritores obligados a subsistir, antes y ahora, a golpe de traducciones se contarían por docenas, si es que no por centenares.

Sin embargo, los resultados más felices se logran, evidentemente, cuando un autor, por su propia voluntad, decide traducir a otro autor al que admira o con el que se identifica, y algunas de las mejores traducciones de la historia de la literatura han surgido así. Uno de los ejemplos más notables es el de Baudelaire, de quien Rémy de Gourmont llegó a decir que, aunque no hubiera escrito *Les fleurs du mal*, hubiera merecido ocupar un alto puesto en la literatura francesa por sus traducciones de Poe. En una carta de 1864, a Théophile Thoré,

Baudelaire se defendía así de los que le acusaban de imitar a Edgar Poe: «¿Sabe por qué he traducido a Poe tan pacientemente? Porque se me parecía. La primera vez que abrí un libro suyo vi, con espanto y arrobamiento, no sólo temas que yo había soñado, sino FRASES pensadas por mí y escritas por él veinte años antes»²⁰

En todas las épocas y todas las latitudes se encuentran combinaciones famosas y probablemente insuperables: Shakespeare/Schlegel, Shakespeare/Pasternak, Melville/Pavese, Yourcenar/Cortázar... La lista podría alargarse. En ocasiones el traductor puede resultar superior al autor, cometiendo así una especie de traición por exceso de celo (¿Saroyan/Vittorini?).

Luego hay un tipo de autores cuyas traducciones, aunque fascinantes, resultan francamente discutibles por obedecer a teorías peculiares o a causa de la propia desmesura del escritor. Holderlin y sus traducciones del griego son quizá el ejemplo más claro, pero los casos abundan: el de Borges (de quien se ha llegado a decir, falsamente, que era un mal traductor; Borges no era más que un traductor insólito, al que importaban cosas distintas de las que importan al común de los traductores²¹); Nabokov (cuya traducción del *Eugene Onegin*, en la que empleó cinco o seis años,²² es un prodigio de exactitud y erudición, pero ha sido calificada de ilegible²³); Ezra Pound (muy capaz de traducir del chino sin saber chino, gracias a una intuición asombrosa²⁴) y algunos otros. Sin embargo, cada uno de ellos exigiría un estudio a fondo y, muchas veces, sus pretendidos «errores» no son más que desviaciones deliberadas o pequeños lunares que nada significan ante la belleza indiscutible del conjunto.

Por último, hay escritores que abordan la traducción en sus períodos de sequía, o como simples ejercicios de estilo para agilizar la mano. Para Gide, traducir era un medio de conocer mejor, un excelente instrumento crítico²⁵, y Javier Marías ha dicho que, si su libro favorito es el *Tristram Shandy* es porque lo tradujo y, por consiguiente, además de leerlo, lo *escribió* también: «Probablemente —dice— es y será mi mejor texto»²⁶.

La realidad es que todas esas formas de acometer la traducción son, en principio, perfectamente válidas y no incompatibles entre sí, porque sus motivaciones se confunden o combinan. Así, por ejemplo, Peter Handke, excelente traductor, quizá no haya hecho nunca una traducción que no deseara hacer realmente, y sus versiones de René Char o Francis Ponge son, sin lugar a dudas, verdaderas declaraciones de amor²⁷. Sin embargo, cuando traduce al esloveno Florjan Lipuš quizá esté simplemente exorcizando oscuros complejos sobre su propio origen, y es posible que al traducir al norteamericano Percy Walker cediera, no sólo al deseo de compartir un «descubrimiento» literario sino también al de tomarse un descanso en la agotadora búsqueda de nuevos modos de expresión. En *La tarde de un escritor*²⁸, Handke presenta a un traductor que es feliz simplemente por haber abandonado su propia obra para limitarse en adelante a traducir.

5. Un bicho raro: el autotraductor

